

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU
OROKORREN GAINEKO GENERO INPAKTUARI BURUZKO
TXOSTENA
2018

Ogasun eta Ekonomia Saila

2017ko urriaren 20a

AURKIBIDEA

1. Esparru arauemailea	4
2. Kontzeptu-esparrua: mainstreaming edo genero-ikuspegia	5
3. Genero-ikuspegia duten aurrekontuak EAEn.....	6
3.1. Sarrera	
3.2. 2018ko aurrekontuak	
4. Diagnostiko sozioekonomikoa.....	9
5. Diru-sarreraren analisia.....	9
6. Gastuen analisia: I. kapitula – Langile-gastuak.....	10
7. Aurrekontu-gastuen analisia: aurrekontu-programak	16
7.1. Generoarekiko egokitasuna	19
7.2. Generoarekiko garrantzia	20
7.3. Sail guztientzako egitura- eta laguntza-programa komunaren analisia	21
7.4. Gainerako programen analisia sailka	31
8. Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak analizatzeko prozesuaren ebaluazioa.....	79

1. ESPARRU ARAUEMAILEA

Txosten honen xedea da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikuluan ezarritakoa betetzea. Horren arabera, EAEko botere publikoek betebeharrak hau dute:

"Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeke eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean".

Kontuan izanik proiektu arauemailearen azken xede-biztanleria Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi diren pertsonak direla, eta horrek eragina duela bai baliabideak eskuratu eta/edo kontrolatzeko emakumeek eta gizonek dituzten aukeretan, bai haien bizi-baldintzetan eta/edo posizioan (berori hobetuta eta okerragotuta), erabaki da egokia dela proiektu arauemailearen genero-analisia egitea. Horrenbestez, txosten hau egin da, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen Aurreproiektuari eransteko.

Bestalde, Jaurilaritzaren Kontseiluak 2013ko abenduaren 30ean onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana, egun indarrean dagoena. Bada, plan horrek ezartzen du, gobernantza hobetzeko neurrien artean, aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea (G9.).

2. KONTZEPTU ESPARRUA: MAINSTREAMING EDO GENERO IKUSPEGIA

Beijingen 1995ean izandako Emakumeei buruzko Nazio Batuen IV. Mundu Konferentzian, lehen aldiz zehaztu zen ondoren izango zena herrialde kide guztien politika publiko eta programa guztietan abiatu beharreko funtsezko ikuspegi estrategikoa: "generoko mainstreaming" izenekoa, "zeharkakotasuna" edo "genero-ikuspegia" izenaz ere ezaguna dena.

Ondoren, lan-ikuspegi hori Europako esparru juridikoari gehitu zitzaion 1999an, Amsterdamgo Ituna indarrean jartzearekin batera (2. eta 3. artikulua). Generoko mainstreaminga ezagututa dago, baita ere, Nizan 2001ean sinatutako Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean.

Euskal Autonomia Erkidegoan, gure funtsezko erreferentzia-esparrua da 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. Printzipio orokorreari buruzko haren 3. artikuluan berariaz jasotzen da genero-ikuspegia txertatu behar dela EAEko botere publikoen politika eta ekintza guztietan. Eta, genero-ikuspegia txertatzeak esan nahi du:

"emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea".

Emakumeei buruzko NBEaren 2000ko Mundu Konferentziak —Beijing +5 izenaz ezaguna da eta New Yorken egin zen, Nazio Batuen egoitzan— bere ebazpen orokorrean estatu kideak behartzen ditu genero-ikuspegia aurrekontu publikoetan txertatzera, gobernu-maila guztietan, EBren aurrekontuan barne.

3. GENERO IKUSPEGIA DUTEN AURREKONTUAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

3.1. SARRERA

Genero-ikuspegia duten aurrekontuen helburu nagusia da erakustea politika publikoak generoarekiko neutroak ez direla, hau da, bestelako eragina izan dezaketela emakumeengan eta gizonengan.

Eusko Jaurlaritzak ibilbide luzea du genero-ikuspegia duten aurrekontuen analisian. Hain zuzen, 1999aren amaiera aldean hasi zuen bide hori.

Laburbilduz, aipatzekoak dira Emakundek zuzendutako bi esperientzia pilotuak (1999-2002 eta 2010-2012) eta berdintasun-teknikak analizatzeko lan koordinatua, hainbat sail eta erakunde autonomo eta Emakunde 2009tik hona egiten ari direna.

Era berean, inflexio-puntutzat nabarmendu behar da erabilitako metodologiaren aldaketa 2016ko aurrekontuak genero-ikuspegitik analizatzeko. Aldaketa hori P-Gen formularioetan gauzatzen da. Aipatutako metodologia etengabe berrikusten eta Euskal Administrazio Publikoaren errealitatera egokitzen da. Eskatzen du:

- ✓ Aztertzea zen inpaktu duten aurrekontu-esleipenek emakumeen eta gizonen aukera sozioekonomikoen gainean, Euskal Administrazio Publikoaren jarduketa-esparru guztietan, eta plangintza, gauzatze eta ebaluazioko fase guztietan.
- ✓ Berregituratzea duten inpaktuagatik egungo diskriminazio-egoerei eusten dieten edo horiek areagotzen dituzten partidak, emakumeek eta gizonen gure gizartean duten egoera eta/edo posizioa dela eta.

Aurrekontu-programen analisi- eta ezagutza-maila eskakizun handikoa denez, aurrekontuen analisia, genero-ikuspegitik, epe luzerako prozesutzat hartzen da. Prozesu horretan, sail eta erakunde autonomo bakoitzak egokientzat jotzen duen estrategia landu behar du, denborarekin bidea emango duena genero-ikuspegia izango duten aurrekontu orokorrak prestatzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde deklaraturako konpromiso politikoaren ildotik, aurreko ataletan ikusi denez.

3.2. 2018KO AURREKONTUAK

Gobernu Kontseiluak, 2017ko ekainaren 27an egindako bilkuran, onartu egin zituen Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) 2018rako Aurrekontu Orokorrak onartzeko beharrezko jarraibide ekonomikoak eta arau teknikoak.

JARRAIBIDE EKONOMIKOAK

Euskadi, auzonala da XI. legegintzaldian gobernu-ekintzaren goiburua. Nazio Batuen Giza Garapen Iraunkorraren ikuspegian gauzatuta (Agenda 2030), herrialdeen 15 helburu estrategiko zehazten ditu. Horietako batean, Euskal Autonomia Erkidegoa hautagai da Europako lehen 4 herrialdeen artean egoteko genero-berdintasunari dagokionez.

Horretarako, sail, entitate eta erakundeei adierazten zaie programak landu ditzaten baliabide-zuzkidura duten jarduketan multzotzat, plangintzaren helburuak lortzeko. Horretarako, inkardinazio hori dagozkion memorietan esplizitatu behar da. Output-eko baliabideak, ekintzak eta adierazleak jasotzen dituzten programak justifikatu egin behar dira, era berean, helburu estrategikoekiko duten loturagatik. Hala, haien eta planen jarraipena monitorizatzeko lagundu egin behar du, abiarazitako ekintzen emaitzak eraginkortasunez gauzatzen ez ezik, haiek guztiak espero diren azken inpaktuekin lotzen ere.

Plangintza antolatu eta lotuz gero —prestaketa, gauzatze eta ebaluazioko fase guztietan— aurrekontuen prestaketarekin, ahalbidetu egiten da, halaber, ohiko urtebeteko ziklotik harantzago doazen urte anitzeko aurrekontuak finkatzen aurrera egitea. Horiek ez dira iraganeko gastu-joeren estrapolazio hutsak. Aldiz, etorkizuna moldatzeko benetako tresnatzat hartu behar dira, legegintzaldi honetarako gobernu-programaren hamabost helburuak gauzatzeari begira.

Plangintza-eskema horrek, gobernu-programarekin antolatuta, oinarriak ezartzen ditu sailek emaitzetara bideratutako aurrekontuak egiteko.

ARAU TEKNIKOAK

Helburu dute gida izatea Euskal Autonomia Erkidegoaren 2018rako Aurrekontu Orokorren aurreproiektua egiteko, argituta bai aurrekontu-teknikarekin lotutako alderdiak, bai alderdi informatiko hutsak.

Aplikatzekoak zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorriari, administrazio-erakunde autonomoei eta sektore publikoko partzuergoei.

Arau teknikoen dokumentuak, "Aurreproiektua prestatzeko zehaztapen teknikoak" atalean, "Aurrekontu-programak genero-ikuspegitik analizatzeko P18-Gen" formularioa gehitzen du, baita berori zuzen betetzeko azalpen xehatua ere.

P18-GEN FORMULARIOA

Aurrekontu Orokorretan genero-inpaktua ebaluatzeko Eusko Jaurlaritzak bereganatutako funtsezko tresna da. Ikusgai jarri nahi du Administrazio Orokorren, erakunde

autonomoen eta partzuergoen bidez laguntzen ari ote den desberdinkeria-egoerak gutxiagotzen, areagotzen edo mantentzen; emakumeek eta gizonek gizartean dituzten bizipen, posizio eta roletatik abiatuta.

Formularioa eta haren arau teknikoak diseinatzeko, Ogasun eta Ekonomia Sailak Euskal Herriko Unibertsitate Publikoaren aholkularitza izan du. Era berean, berdintasun-unitateen ekarpenak izan dira, P17-Gen formularioa betetzeak berekin ekarritako esperientziaren emaitza gisa.

Antzemandako hobekuntza-alderdietako bat izan zen aurrekontu-programetan erantzukizunak dituzten langile teknikoak prestatzeko beharra. Horri erantzuteko, Ogasun eta Ekonomia Sailak, Emakunderekin eta HAE Erekin batera, 2017ko ekainean bi prestakuntza-ikastaro antolatu ditu "Aurrekontuak genero-ikuspegiaz" izenburupean. Biak osatu egin ziren Ogasun eta Ekonomia Sailak kontratatutako online aholkularitza batekin.

Aipatzekoa da, orobat, P18-Gen formularioak berreskuratu egiten duela berdintasuneko berariazko ekintzetara zuzendutako aurrekontuaren analisia. Azterlan hori metodologia-aldaketaren aurretik ari zen egiten.

P18-Gen formularioak bost atal eta zenbait azpiatal ditu:

1. Programa.
2. Generoarekiko egokitasuna.
3. Generoarekiko garrantzia:
 - Programaren deskribapen orokorra egitea eta hura berdintasun-mandatuekin alderatzea.
 - Dagozkion programak sailkatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiteko duten garrantziaren arabera.
4. Programaren helburuak, biztanleria hartzailea eta jarduketak:
 - Garrantzi txikikotzat edo ez-egokitizat hartzen diren programaren helburuen zerrenda.
 - Garrantzi handikotzat eta ertainekotzat hartzen diren programaren helburuak eta jarduketak deskribatzea.
 - Programak xede dituen emakumeen eta gizonen bizi-baldintzak.
5. Programari buruzko gogoeta eta hura hobetzeko proposamenak:
 - Aurrerapenak aurreko ekitaldiekiko.
 - Hobekuntza-neurri zuzentzaileak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiteko.
 - Programaren jarduketa-esparruari lotuta, ezagutzen al da genero-ikuspegia duen azterlan berriren bat? Zein?
 - Kontuan hartzen al da genero-ikuspegia duen azterlanen bat egiteko aukera? Zein?
 - Zuzenketa-proposamenak: hizkuntza ez-sexista erabiltzea eta estereotipo sexistak ezabatzea komunikazio-elementuetan.

4. DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKOA

Otsailaren 23an, Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako 2017ko Aurrekontu Orokorren Lege Aurreproiekturi genero-inpaktuaren inguruko txosten bat erantsi zitzaion. Txosten horretan, emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa aurkezten da arlo hauei dagokienez: osasuna, denbora, ezagutza, enplegua, dirua, emakumeen aurkako indarkeria eta boterea. Txosten honetara arte igarotako denbora laburra dela-eta, ez dago behar adinako datu eguneraturik beste diagnostiko bat egiteko. Horregatik, atal honetan, 2017ko aurrekontuetako genero-inpaktuari buruzko txostenera jotzen da.

5. DIRU SARREREN ANALISIA

Urte naturalerako aurreikusitako sarrerak eta gastuak islatzen dituen tresna da aurrekontu publikoa. Haiek kontzeptuka banakatu eta zifra globaletan orekatzen ditu: Bi zati ditu:

- Sarrerak
- Gastuak

EA Eren Aurrekontu Orokorrei dagokienez, sarrerak hiru foru-aldundietatik jasotzen dira, funtsean. Horiek, era berean, dagozkien lurraldeetan zuzeneko eta zeharkako zergen bitartez biltzen dituzte funtsak. Jasotako transferentzia horiekin egiten da banaketa, gastu-moduan, aurrekontu-programen artean.

Aurrekontuaren bi osagai horiek erkidegoan ondorea dutenez, bidezkoak dira genero-ikuspegiko analisiari dagokionez. Hori esanda, aipatzekoa da txosten honetan gastua besterik ez dela aztertuko. Hala, etorkizunerako geratuko da, genero-ikuspegia duten EA Eren Aurrekontu Orokorrak analizatzeko prozesua finkatuagoa dagoenean, bai sarrera, bai superabitaren edo defizitaren ondorioak analizatzea.

6. GASTUEN ANALISIA: I. KAPITULUA – LANGILE GASTUAK

Genero-inpaktuari buruzko aurreko txostenean, sailen eta erakunde autonomoen arabera aurkeztu zen langileei buruzko informazioa. Honako honetan, interesa duten beste datu osagarri batzuk nabarmentzen dira.

EAE-KO ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURAKO LANGILEAK

Jarraian agertzen den taulan, ez dira barne hartzen 6 hilabetetik beherako kontratuak dituzten langileak, ezta goi-karguak ere. Salbuespen hori kontuan izanda, esan daiteke EAEko administrazioan nagusiki emakumeek lan egiten dutela. Gertakari hori jadanik nabarmentzen da aurreko txostenean, eta hala jasota geratu zen Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Planean.

1. taula. EAEko administrazioaren zerbitzurako langileak esparruka. 2017

	2017ko lehen sei hilekoa		Emakumeak
	Guztira	6.946	
Administrazio Orokorra	Emakumeak	4.323	% 62
	Gizonak	2.623	
	Guztira	2.521	
Justiziako langileak	Emakumeak	1.930	% 77
	Gizonak	591	
	Guztira	7.542	
Ertzaintzako langileak	Emakumeak	842	% 11
	Gizonak	6.700	
	Guztira	25.069	
Hezkuntzako langileak	Emakumeak	18.706	% 75
	Gizonak	6.363	
	Guztira	42.078	% 61

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Herri Administrazio eta Justizia Saila. Funtzio Publikoko Zuzendaritza. Euskal AEko sektore publikoko langileei buruzko estatistika.

FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEA

Atal honetan analizatzen diren datu guztiak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Funtzio Publikoko Zuzendaritzak emanak dira. 2017ko urtarilaren 1etik uztailaren 1era bitarteko aldia hartzen dute.

Agertzen diren tauletan agerian geratzen da Administrazioaren esparru guztietan bai baimenak, bai eszedentziak emakumeek eskatu eta hartzen dituztela kasu gehien-gehienetan. Zaintzaren erantzukizuna emakumeen esku dago ia erabat. Izan ere, 2017an, emakumeek aukeratu dituzte zaintzarako murrizketen % 89,

amatasuneko/aitatasuneko/edoskitzeko baimenen % 74, gurasoak zaintzeko urteko 50 orduko baimenen % 79 eta eszedentzien % 93.

2. taula. Lanaldi-murrizketako egoeran dauden pertsonak 2017an

KOLEKTIB OA	MURRIZKETA MOTA	SEXUA	PERTSONA KOP.*	EMAKUM EEN %
ADMINISTRATIO OROKORRA	Seme-alaben zaintza	E	267	% 89
		G	32	
	Senideen zaintza	E	44	% 88
		G	6	
	Pertsona desgaituen zaintza	E	1	% 100
		G	0	
			350	
HEZKUNTZA	Seme-alaben zaintza	E	903	% 89
		G	111	
	Senideen zaintza	E	104	
		G	12	
	Pertsona desgaituen zaintza	E	3	% 100
		G	0	
			1133	
JUSTIZIA	Seme-alaben zaintza	E	35	% 100
		G	0	
	Senideen zaintza	E	16	% 94
		G	1	
	Pertsona desgaituen zaintza	E	0	
		G	0	
			52	
HERRIZAINGOA	Seme-alaben zaintza	E	7	% 7
		G	1	
	Senideen zaintza	E	2	% 67
		G	1	
	Pertsona desgaituen zaintza	E	1	% 1
		G	0	
			12	
GUZTIRA			1547	% 89

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Herri Administrazio eta Justizia Saila. Funtzio Publikoko Zuzendaritza. Euskal AEko sektore publikoko langileei buruzko estatistika.

Oharra: Ebaluatutako aldian enplegatu bat behin baino gehiagotan murrizketan egonda ere, behin bakarrik kontabilizatzen da.

3. taula: Mota honetako gutxienez baimen bat izan dutenen kopurua. 2017

KOLEKTIBO A	BAIMEN MOTA	SEXUA	PERTSON A KOP.*	EMAKU MEEN %
ADMINISTRATIO OROKORRA	AMATASUNA	E	55	
		G	3	
	AITATASUNA	E	1	
		G	18	
	EDOSKITZEA	E	32	
		G	4	
			113	% 78
HEZKUNTZA	AMATASUNA	E	534	
		G	25	
	AITATASUNA	E	2	
		G	124	
	EDOSKITZEA	E	247	
		G	26	
			958	% 82
JUSTIZIA	AMATASUNA	E	24	
		G	0	
	AITATASUNA	E	0	
		G	7	
	EDOSKITZEA	E	14	
		G	1	
			46	% 83
HERRIZAINGOA	AMATASUNA	E	23	
		G	8	
	AITATASUNA	E	1	
		G	82	
	EDOSKITZEA	E	15	
		G	36	
			165	% 24
GUZTIRA			1282	% 74

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Herri Administrazio eta Justizia Saila. Funtzio Publikoko Zuzendaritza. Euskal AEko sektore publikoko langileei buruzko estatistika.

Oharra: Pertsona berbera baimen mota batean baino gehiagotan kontabilizatuta egon daiteke (adibidez: aitasuna + edoskitzea).

4. taula. Baimen honi dagozkion 50 orduak erabili dituzten pertsonen kopurua. 2017

KOLEKTIBOA	SEXU A	Pertson a kop.*	EMAKUM EEN %
ADMINISTRATIO OROKORRA	E	1893	% 72
	G	749	
		2642	
HEZKUNTZA	E	2532	% 84
	G	469	
		3001	
JUSTIZIA	E	571	% 84
	G	111	
		682	
HERRIZAINGOA	E	113	% 67
	G	56	
		169	
GUZTIRA		6494	% 79

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Herri Administrazio eta Justizia Saila. Funtzio Publikoko Zuzendaritza. Euskal AEko sektore publikoko langileei buruzko estatistika.

Oharra: Segurtasuneko kolektiboari buruzko datuak langile lan-kontratudunei dagozkie soilik.

5. taula. Noizbait eszedentzia-egoeran egon diren pertsonen kopurua 2017an

KOLEKTIBOA	ESZEDENTZIA MOTA	SEXUA	*Pertsona kop.	EMAKUMEEN %
ADMINISTRATIO OROKORRA	Senideak zaintzea	E	5	% 63
		G	3	
	Seme-alabak zaintzea	E	38	% 88
		G	5	
	Senideen elkartea	E	1	% 100
		G	0	
			52	
HEZKUNTZA	Senideak zaintzea	E	19	% 90
		G	2	
	Seme-alabak zaintzea	E	110	% 96
		G	4	
	Egoera babestuak edo kidekoak	E	166	% 88
		G	12	
			313	
JUSTIZIA	Senideak zaintzea	E	2	% 100
		G	0	
	Seme-alabak zaintzea	E	10	% 100
		G	0	
			12	

HERRIZAINGOA	Senideak zaintzea	E	1	% 50
		G	1	
	Seme-alabak zaintzea	E	4	% 100
		G	0	
			6	
GUZTIRA			383	% 93

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Herri Administrazio eta Justizia Saila. Funtzio Publikoko Zuzendaritza. Euskal AEko sektore publikoko langileei buruzko estatistika.

Oharra: Ebaluatutako aldian enplegatu bat behin baino gehiagotan eszedentzian egonda ere, behin bakarrik kontabilizatzen da.

BERDINTASUNERAKO PRESTAKUNTZA

Urteko lehen sei hilekoan, berdintasunean prestatzea aukeratu zutenen % 83 emakumeak dira. Datu hori bat dator, era berean, Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Planean aurkeztutako diagnostikoarekin. Bertan ikusten denez, HAEE – Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak urtero antolatzen dituen prestakuntza-ikastaroetako bertaratuen % 68,77 emakumeak dira.

6. taula. HAEEk eskaintzen dituen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroetara bertaratzea, 2017

2017	IKASTAROA	Guztira	Emakumeak	Gizonak
OTSAILA	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO IKASTAROA	19	15	4
	HIZKUNTZAREN BERDINTASUNEZKO ERABILERA GURE KOMUNIKAZIOAN	45	39	6
MARTXOA	GENERO IKUSPEGIA DUEN KOMUNIKAZIOA	12	9	3
	GENERO IKUSPEGIA DUTEN AZTERLAN ETA IKERKETA KUANTITATIBOAK	24	22	2
	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK	37	29	8
	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK	33	29	4
MAIATZA	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO IKASTAROA	10	8	2
EKAINA	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK	12	11	1
	GENERO IKUSPEGIA DUTEN AURREKONTUEI BURUZKO LANTEGIA (2. EDIZIOA)	43	34	9
URRIA	EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK	0		
	GENERO INPAKTUAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA	0		

	DENBOREN	IKUSPEGI	BERRIAK:	0
	ERANTZUNKIDETASUNA ETA BATERATZEA			
AZAROA	EMAKUMEEN	ETA	GIZONEN	ARTEKO
	BERDINTASUNARI	BURUZKO	OINARRIZKO	0
	PRESTAKUNTZA IKASTAROAK			
	GENERO	IKUSPEGIA	DUEN	PERTSONEN
	KUDEAKETA ADMINISTRAZIOAN			
				235
				196
				39

83%

Iturria: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea – HAEE

7. GASTUEN ANALISIA: aurrekontu-programak

Jarraian agertzen den taulan, Aurrekontu Orokorra banatzen deneko atalak zerrendatzen dira:

7. taula. Aurrekontu Orokorra atalka

AURREKONTUA ATALKA		AURREKONTUA (*)
Atala	IZENA	€
1	LEHENDAKARITZA	117.573.000
2	GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	118.664.000
3	EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	889.019.000
4	ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	1.014.084.000
5	INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	205.930.000
6	OGASUNA ETA EKONOMIA	50.754.000
7	HEZKUNTZA	2.716.826.000
8	OSASUNA	3.671.362.000
9	TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	38.325.000
10	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	250.584.000
11	SEGURTASUNA	640.294.000
12	LANA ETA JUSTIZIA	209.933.000
	1 guztira	9.923.348.000
0	LEGEBILTZARRA	30.000.000
51	LAN HARREMANEN KONTSEILUA	2.453.566
52	EUSKAL EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA	1.389.853
53	EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOI KONTSEILUA	942.443
54	HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA	7.519.312
55	DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA	1.604.623
90	ZOR PUBLIKOA	1.346.774.720
95	BALIABIDE ETA KONPROMISO INSTITUZIONALAK	87.617.375
99	HAINBAT SAIL	84.759.108
	2 guztira	1.563.061.000
	Guztira (1+2)	11.486.409.000

(*) 2017ko urriaren 20a

Guztira 21 atal daude, eta horietatik 12 Eusko Jaurlaritzaren egitura organikoa osatzen duten sailei dagozkie.

Ogasun eta Ekonomia Sailak P18-Gen formularioa bete dezaten eskatu die Administrazio Orokorreko sail, erakunde autonomo eta partzuergo guztiei. Horregatik, ez dago informaziorik genero-ikuspegitik analizatu ahal izateko 0 atalari eta 51.etik 99.era bitarteko atalei zuzendutako aurrekontuko programak.

8. taula. 0 atalaren eta 51.-99. atalen programak

0	LEGEBILTZARRA
	1111. Legebiltzarra
51	LAN HARREMANEN KONTSEILUA
	3131. Lan Harremanen Kontseilua. Solaskidetza sozialaren garapena
52	EUSKAL EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA
	1124. Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseilua
53	EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOI KONTSEILUA
	3213. Euskadiko Kooperatiben Goi Kontseilua
54	HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA
	1112. Herri Kontuen Euskal Epaitegia – HKEE
55	DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA
	1113. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa – DBEB
90	ZOR PUBLIKOA
	0111. Zor publikoa
95	BALIABIDE ETA KONPROMISO INSTITUZIONALAK
	9119. Bestelako finantza-harremanak Euskal Sektore Publikoarekin
99	HAINBAT SAIL
	1221. Hainbat sail
	1222. Kreditu globala

Guztira, aurrekontuaren % 14 atal horietara zuzentzen da. Horien gastua, batez ere, IV. kapituluari banatzen da (gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak).

Txosten honetan analizatu beharreko guztizko aurrekontua 9.923.348.000 € da; sailei dagokiena, hain zuzen. Sail guztien artean banatzen da. Sail bakoitzaren partidan sartuta daude, halaber, hari atxikitako erakunde autonomoei dagozkien partidak (guztira 11), taula honetan ikus daitekeenez:

9. taula. Aurrekontua sailka (erakunde autonomoak eta partzuergoak barne)

SAILAK, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		SAILAREN AURREKONTUA €	ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTUA		SAILAREN GAINERAKO AURREKONTUA
Atala	ERAKUNDE AUTONOMOEN PROGRAMAK SAILKA		€	ERAKUNDE AUTONOMO ETA PARTZUERGO EK KUDEATUTAK O AURREKONTUA	
1	LEHENDAKARITZA	117.573.000		% 7	109.700.000
	3223. Emakunde		5.817.000		
	4622. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua		2.056.000		
2	GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	118.664.000		% 16	99.336.000
	1216 eta 4714. HAAE		19.328.000		
3	EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	889.019.000		% 0	889.019.000
4	ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	1.014.084.000		% 87	129.702.000
	3111, 3121, 3211, 3231. Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua		884.382.000		
5	INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	205.930.000		% 0	205.930.000
6	OGASUNA ETA EKONOMIA	50.754.000		% 28	36.540.000
	5511. Euskal Estatistika Erakundea - Eustat		12.994.000		
	6115. Lehiakortasunerako Euskal Agintaritza		1.220.000		
7	HEZKUNTZA	2.716.826.000		% 2	2.662.917.000
	4221. Haurreskolak partzuergoa		53.909.000		
8	OSASUNA	3.671.362.000		% 0	3.671.362.000
9	TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	38.325.000		% 17	31.667.000
	4432. Kontsumobide –Kontsumoko Euskal Institutua		6.658.000		
10	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	250.584.000		% 17	208.515.000
	4713. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea – HABE		42.069.000		
11	SEGURTASUNA	640.294.000		% 2	624.859.000
	2224. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia		15.435.000		
12	LANA ETA JUSTIZIA	209.933.000		% 7	195.761.000
	3113. OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako euskal erakundea		14.172.000		
Guztira		9.923.348.000	1.058.040.000	% 11	8.865.308.000

Erakunde autonomoek sailen aurrekontuaren guztira % 11 kudeatzen dute. Erakunde autonomoei beraiei dagokie sailen aurrekontuaren zati hori analizatzea.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila nabarmentzen da, Lanbideri transferitzen baitio bere aurrekontuaren % 87. Erakunde autonomoen eta partzuergoen eskumena da dagozkien aurrekontu-programen formularioak betetzea.

7.1. GENEROAREKIKO EGOKITASUNA

Atal honetan, programek generoarekiko duten egokitasuna analizatzen da.

Arau teknikoen dokumentuan jasota dagoenez, aurrekontu-programak generoarekiko egokiak eta, hortaz, aztergarriak izango dira, baldin eta:

- ✓ Programen azken hartzaileak pertsona fisikoak, juridikoak edo berezko nortasun juridikoa duten erakundeak badira.
- ✓ Zuzenean edo zeharka emakumeengan eta gizonengan eragina badute. Hala:
 - Zuzeneko eragina izango dute, baliabide jakin batzuetarako (bekak, lanpostuak, batzordeen osaera, etab.) pertsonak duten eskuragarritasuna arautzen badute.
 - Zeharkako eragina izango dute, baliabide eta/edo zerbitzu jakin batzuk kudeatzeko eta/edo produzitzeko moduetan ondorioz badute, eta haien atzean dauden pertsonak kudeatzaileak eta/edo produzitzaileak nahiz azken hartzaileak badira.

Egokitasunaren analisisan, ahalegin bat egin da aurrekontu-programak banakatzeko; egokitasunak eragindako zenbatekoak zehatz finkatzeko helburuarekin. Sailek, euren programen bidez, funtsak transferitzen dizkiete beren erakunde autonomoei. Erakundeak finantzatzeko baliabideen mugimendu hori "generoarekiko ez-egokiak" dira; erakunde autonomoek funts horiek kudeatzeko era, ordea, generoarekiko egokia da.

7.4 atalean, aurrekontu-programen egokitasuna sailka analizatzen da. Laburbilduz, sailek sartzen duten aurrekontuaren % 97 generoarekiko egokia da. Gainerako % 2a honako hauei dagokie:

- ✓ Lehendakaritzak egiten dizkien transferentziak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari (erakunde publikoa) eta Berrikuntzarako Funtsari.
- ✓ Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egiten dion transferentzia URA – Uraren Euskal Agentziari (erakunde publikoa).
- ✓ Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egiten dion transferentzia EITB – Euskal Irrati Telebistari.

- ✓ Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren "Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa" 1125 programa, ez-egokitzen kalifikatutakoa (ikus 7.4 atala).
- ✓ Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia. Formularioa bete ez duenez, ezin izan da analizatu.

Aurrerapen handia ikusi da bai analisirako informazioa igorri deneko aurrekontuaren bolumenean (% 99, 2017ko aurrekontuetarako eskatutakoaren % 75aren aldean), bai egokitzen hartutako programa kopuruan. Ildo horretatik, kontuan hartu dira "Energia eta Meatze Politika eta Garapena" 7311, "Zerga Politika" 6112 eta "Finantza Politika" 6311 programak ez-egokitzen hartzeari dagokionez aurreko txostenean egindako gomendioak. Hala, 2018ko aurrekontuetarako, hiru programak generoarekiko egokitzen kalifikatu dira.

7.2. GENEROAREKIKO GARRANTZIA

Oro har, hau izan da, zalantzarik gabe, P18-Gen formularioan gehien landu den atala.

Alde batetik, eskatu da analizatzea nola lotzen diren, alde batetik, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta, bestetik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Plana aurrekontu-programen memorietan jasotako helburu eta ekintzekin. Azterlanak bidea eman du agerian uzteko, ez soilik betetze-maila, baizik eta berdintasunezko gizartea lortzeko duen ahalmena ere.

Bestalde, generoarekiko garrantzi-maila jakin batekin programa kalifikatzea eskatzen da. Horretarako, analizatu beharreko bi irizpide ematen ziren. Hots:

- ✓ 1. irizpidea. Inpaktu-ahalmena: Programaren jarduketaren xede den biztanleriaren arabera. Inpaktu-ahalmena neurtzen da bai xede-biztanleria bolumenaren arabera, bai programak helburu duen kolektibo zehatzaren arabera. Hala, gerta daiteke programa batek inpaktu-ahalmen handia izatea, nahiz eta xede-biztanleriak ehuneko txiki bat ordezkatu, berdintasunerantz aurrera egiteko talde estrategiko bat izateagatik.
- ✓ 2. irizpidea. Berdintasunarekiko garrantzia: Genero-desberdinkeria murrizteko eragin-ahalmena neurtzen du.

Irizpide bakoitzeko hiru balio eskaintzen dira, 1etik 3ra artekoak, eta erreferentzia-ohar batzuk dituzte. Horiek aukera ematen dute aurrekontu-programa generoarekiko garrantzi handikotzat, ertainekotzat edo txikikotzat kalifikatzeko.

Kontuan izanik analizatutako aurrekontua 2017ko aurrekontuak baino askoz handiagoa dela, eta ia sail eta erakunde autonomo gehienek parte hartu dutela "genero-ikuspegia duten aurrekontuak" sortzen, pentsatzekoa da txosten honetan jasotako balorazioa sendoagoa dela 2017ko aurrekontuetarako aurkeztutakoa baino:

- ✓ Generoarekiko garrantzi-maila handia: analizatutako aurrekontuaren % 43.
- ✓ Generoarekiko garrantzi-maila ertaina: analizatutako aurrekontuaren % 50.
- ✓ Generoarekiko garrantzi-maila txikia: analizatutako aurrekontuaren % 7.

Lan eta Justizia Sailak "Egitura eta Laguntza" programa besterik ez du kalifikatu. Sail hori sortu berria da XI. legegintzaldirako eta, egun, ez du formularioak nola bete aholkatzeko berdintasunerako administrazio-unitaterik. Hori dela eta, proposatu dute Saileko berdintasuneko langile teknikoak dituzten unetik aurrekontu-programak analizatzeko lanari ekitea.

Segurtasun Sailak ez ditu formularioak bete. Hala ere, 2018ko aurrekonturako arau teknikoetara eguneratutako egokitasunari eta garrantziari buruzko balorazioa igorri dute.

7.3. SAIL GUZTIENTZAKO EGITURA ETA LAGUNTZA PROGRAMA KOMUNAREN ANALISIA

Eusko Jaurlaritzako 12 sailetako bakoitzak "Egitura eta Laguntza" izeneko programa bat du. Programaren edukia, funtsean, berbera da guztientzat. Besteak beste, saileko langileei zerbitzu hauek egiten dizkio: laguntza juridikoa, kudeaketa ekonomikoa, kontratazioa, langileen kudeaketa, eta euskararen eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena.

"Egitura eta Laguntza" programa bereiz analizatzea erabaki da. Horren helburua da agerian jartzea sail bakoitzak dituen estrategiak eta abiadurak, eta egiten ari den aurrerapenak eta hobekuntza-proposamenak (helburu partekatuekin ere), gainerako sailentzat interesgarriak izan daitezkeenak.

7.3.1. Generoarekiko garrantziaren analisia

10. taula. "Egitura eta Laguntza" programen aurrekontua sailka

SAILEN AURREKONTU PROGRAMAK ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA PARTZUERGOEN ARABERA	AURREKONTU PROGRAMA	GARRANTZIA
LEHENDAKARITZA		
1121. Egitura eta Laguntza	10.696.362	HANDIA
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA		
1211. Egitura eta Laguntza	10.639.016	HANDIA
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK		
7211. Egitura eta Laguntza	18.819.834	ERTAINA
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK		
3111. Egitura eta Laguntza	23.583.727	HANDIA
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA		
4420. Egitura eta Laguntza	6.034.255	HANDIA
OGASUNA ETA EKONOMIA		

6110. Egitura eta Laguntza	6.842.332	HANDIA
HEZKUNTZA		
4211. Egitura eta Laguntza	65.016.640	HANDIA
OSASUNA		
4111. Egitura eta Laguntza	17.906.342	ERTAINA
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA		
7510. Egitura eta Laguntza	2.816.630	HANDIA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA		
4511. Egitura eta Laguntza	3.826.114	ERTAINA
SEGURTASUNA		
2211. Egitura eta Laguntza	5.107.746	ERTAINA
LANA ETA JUSTIZIA		
3110. Egitura eta Laguntza	2.755.146	TXIKIA
GUZTIRA:	174.044.144	

Taulan ikus daitekeenez, programa horiei zuzendutako aurrekontua 174.044.144 € da, sailen aurrekontuen % 1,75. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren 3111 programaren kasuan, programaren guztizkotik kendu da Lanbideri transferitzen zaion zenbatekoa.

Oro har, aipatu behar da sailek egindako ahalegina formularioa betetzeko. Nabarmentzekoa:

- Gehienek garrantzi handikotzat hartu dute; izan ere, programa honen barruan baitago Berdintasunerako Administrazio Unitatea, sail bakoitzaren berdintasun-politikak bultzatzeaz arduratzen dena, hain zuzen.
- Programen helburu guztiak garrantzizkotzat kalifikatu dira, eta garrantzi handia eta ertaina nagusitu dira.
- Programa hauen zuzeneko biztanleria hartzailetzat hartzen dira, gehienbat, dagokion saileko langileak. Kasu guztietan, egon daitezkeen desberdinkerien analisia eskasa da, sexuka banandutako datu gutxi eskuragarri daudelako. Sailletako zerbitzu-buruzagitzek eskuragarri duten aplikazio informatikoak ere ez ditu datu eguneratuak.
- Programaren eskumenekin lotuta, berdintasun-mandatuaren analisi zorrotza. Oro har, honako hauek identifikatu dira:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 LEGEAREN artikulua:

- 3. artikulua. Printzipio orokorrak: (aukera-berdintasuna; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea, eta koordinazioa eta lankidetzak)

• 5. artikulua. Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eginkizunak • 11. artikulua. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitateak • 15. artikulua. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak • 16. artikulua. Estatistiken eta azterlanen egokitzapena • 17. artikulua. Euskal herri-administrazioetako langileen gaikuntza • 18. artikulua. Xedapen orokorrak • 19. artikulua. Generoaren araberrako eragina aurretiaz ebaluatzea • 20. artikulua. Ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak • 26. artikulua. Gizarte-komunikabideak eta publizitatea
EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren gobernantza-neurriak: G1.- Berdintasunerako plangintza areagotzea eta hobetzea. G2.- BAU sortzea eta indartzea. G3.- Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea. G4.- Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea. G5.- Prestakuntza-jardueretan genero-ikuspegia sartzea. G7.- Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea. G8.- Araudien berdintasunaren printzipioa txertatzea. G9.- Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea. G11.- Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.
Sail bakoitzaren egiturari buruzko dekretua.
213/2007 Dekretua, azaroaren 27koa, Eusko Jaurlaritzako sailetan, organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten unitate administratiboak arautzen dituen.
2014-2016 Berrikuntza Publikorako Planeko Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduan berdintasunaren arloan jasotako mandatuak.
Kargu publikoen Etika eta Jokabide Kodearen testu bategina. 67/2016 ebazpena.

- Sail guztiek, Lan eta Justizia Sailak izan ezik, parte hartu dute Emakundek eta Ogasun eta Ekonomia Sailak formularioa betetzeko eskainitako prestakuntzan. Guztira 44 lagun sartu dira prestakuntzan, horietatik 9 gizonezkoak. Prestakuntza-prozesu horretan, Lehendakaritza eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila online laguntza teknikoan oinarritu dira. Egitura eta Laguntza programan Ogasun eta Ekonomia Sailak kontratatu du laguntza teknikoa.

7.3.2. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekintza espezifikoaren analisia

Oso modu positiboan baloratu dira Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. plana ezartzeko Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean berdintasunerako unitate administratiboak sortzeko, eta Lan eta Justizia Sailean eta HABE erakunde autonomoan UAIak sortzeko

eskaerak. Era horretan, 4/2005 Legeko 11. artikulua eta 213/2007 Dekretuko 3. artikulua aginduak beteko direla bermatuko da, funtsezkoa baita berdintasun-politiketan berdintasunari buruzko mandatuak ezartzeko. Edonola ere, txosten hau ixtean plazak sortzeko behar den aurrekontuaren diru-hornidura falta da.

Aitzitik, IVAPen, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Akademian, EITBn eta ETS-Euskal Trenbide Sarean ez dira egin berdintasunerako administrazio-unitateak sortzeko behar diren izapideak. Beraz, ez da 213/2007 Dekretuaren 3. artikuluan emandako agindua betetzen ari, erakunde autonomo eta entitate publiko horiek berdintasun-politikak sustatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko diren langile espezializatuak izateko.

11. taula. Sail eta erakunde autonomoen arabera berdintasunerako administrazio-unitateetatik berdintasun-politikak sustatzeko aurrekontua.

SAILA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK	BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO UNITATEETATIK BERDINTASUN POLITIKAK SUSTATZEA	AURREKONTUA (€)
LEHENDAKARITZA		
1121. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	57.388
	BAU politikak sustatzeko aurrekontua	5.000
	GUZTIRA	62.388
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA		
1211 - Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	58.424
	BAU politikak sustatzeko aurrekontua	12.000
	GUZTIRA	70.424
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK		
7211. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	59.863
	BAU politikak sustatzeko aurrekontua	6.000
	GUZTIRA	65.863
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK		
3111. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	59.863
	BAU politikak sustatzeko aurrekontua	10.000
		69.863
SAILERA ATXIKIAK: LANBIDE		
3111. Lanbide. Enplegu eta Gizarte Politiketako Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	58.514
	Plana ebaluatzeko eta kudeatzeko aurrekontua	50.000
	GUZTIRA	108.514
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA		
4420. Egitura eta	BAUren kostua	58.067

Laguntza	Plana ebaluatzeko eta kudeatzeko aurrekontua	6.000
	GUZTIRA	64.067
OGASUNA ETA EKONOMIA		
6110. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAU politikak sustatzeko aurrekontua	35.000
	GUZTIRA	91.708
SAILERA ATXIKIA:		
5513. EUSTAT	Kostu tekniko estatistikoa berdintasun-funtzioekin	56.708
	GUZTIRA	56.708
HEZKUNTZA		
4211. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAU politikak sustatzeko aurrekontua	11.000
	GUZTIRA	67.708
OSASUNA		
4111. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAU politikak sustatzeko aurrekontua	5.000
	GUZTIRA	61.708
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA		
7510. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	GUZTIRA	56.708
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA		
4511. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAU politikak sustatzeko aurrekontua	5.000
	GUZTIRA	61.708
SEGURTASUNA		
2211. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAU politikak sustatzeko aurrekontua	7.000
	GUZTIRA	63.708
LANA ETA JUSTIZIA		
SAILERA ATXIKIAK:		
3113 - OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea		
3113 - OSALAN -	BAUren kostua	55.579
	GUZTIRA	55.579
		956.656

BAUren kostuaren aldaketak, batez ere, antzinasun-osagarrien ondorio dira.

Berdintasunerako administrazio-unitateen eskutik berdintasun-ekintza espezifikoak ezartzeko aurrekontuko partiden gehikuntza azpimarratu behar da.

Sail guztietan —sortu berrietan izan ezik— ekintza positibo gisa jaso da, langileek parte hartzen duten emakumeen eta gizonen berdintasun arloko ikastaroak ez zenbatzea urtean prestakuntzarako baimendutako maximoaren barruan. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak —IVAP— eskainitako berdintasunaren esparruko ikastaroen kasuan, sailaren gastua 2.000 eta 3.000 euro artekoa izaten da.

7.3.3. Aurrerapenak aurreko urteekin alderatuta

P18-Gen formularioa betetzeko prestakuntzan eta aholkularitza espezifikoan parte hartzea baloratzen da.

Aurrekontu-memoria batzuk idaztean hizkuntzaren erabilera ez-sexita egiteko hobekuntzak proposatzen dira.

Lehendakaritza

- Generoaren ikuspegia bere ekintzetan ezartzeko kostua balioztatzen saiatuz ahalegin handia egin du.
- Programan ardurak dituzten langileetako batzuek formularioa betetzeko prestakuntza eta aholkularitza jaso dute.
- Langileen inplikazioa funtsean hobetu da
- Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak eta Azterlan Kabinetearen Zuzendaritzak zerbitzuak kontratatzen dizkieten kanpoko enpresak aztertu dira, langileen osaerari, sustatutako berdintasun-neurriei eta kudeatzen duten programaren funts publikoei buruzko informazioa biltzeko helburuarekin.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

- Aurrerapen nagusia da aurrekontu-memoria osorik berriro landu dela, hasierako 10 helburuak 5era murriztuz, eta 5 helburuak, zein ekintzak eta adierazleak berriro kontzeptualizatuz. Gainera, helburuetan zein ekintzetan edo adierazletan, berdintasun-printzipioa eta/edo berdintasunari buruzko mandatuak gehitu dira; halaber, ahal denean, pertsonen buruzko datuen sexuaren arabera bereiztea barne hartu da. Horretarako, Zerbitzuetako zuzendaria eta aurrekontuetako arduraduna buru dituen lantalde bat sortu da. Bertan Berdintasunerako Administrazio Unitateak hartzen du parte.
- Lantaldea P18GEN formularioa betetzeaz arduratu da. Hala, ahalegin berezia egin du berdintasunari buruzko mandatuak analizatzen, eta mandatu horiek programaren

helburuekin eta ekintzekin, biztanleria hartzailearekin, sartuta dagoen kolektiboarekin eta egindako aurrerapenekin erlazionatzen.

- Hobekuntza-esparruak hauteman dira helburuak definitzean, ekintzetan eta adierazletan, baita sexuaren arabera bereizitako datuak biltzean eta aurrekontu-teknika hobetzean —genero-ikuspegitik betetze-mailari buruzko memoria hobetzea barne hartuta— ere.
- Saileko 4 pertsonen genero-ikuspegiko aurrekontuei buruzko tailerrean eta ondorengo aholkularitza teknikoan hartu dute parte. Pertsona horietako bi aurrekontuen eta Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitatearen arlokoak ziren. Arlo hori sailaren aurrekontu-memoria guztien hobekuntza sustatzeaz arduratzen da.

Ekonomiaren garapena eta azpiegiturak

- Formularioa betetzeko ezagutza hobetu da eta sentsibilizazio-maila handitu da.

Enplegua eta gizarte-politikak

- Berdintasunerako Unitateari aurrekontu bat esleitu zaio bere esku-hartze eremuan jarduketak garatzeko.
- Berdintasun-teknikariak eta aurrekontuen arduradunak genero-ikuspegiko aurrekontuen tailer baten lehen edizioan hartu dute parte.
- Erakundeen A.2. atala aztertu da
- Memoria hobetzeko proposamenak egin dira

Ingurumena, Lurralde Planqintza eta Etxebizitza

- Berdintasun Unitatearen helburua berraztertu da eta aldaketak egin dira, formulazio egokiagoa eta neurgarriagoa egiten saiatuz.

Ogasuna eta Ekonomia

- P18-Gen txantiloia Berdintasunerako Administrazio Unitateen eta Emakunderen hobekuntza-proposamenetara egokitzen saiatu dira, P17-Gen txantiloia bete ondoren.
- P18-Gen txantiloia Emakunderekin adostu da arau teknikoen barne hartu aurretik.
- Aholkularitza teknikoak kontratatzeke aurrekontua handitu da. Aholkularitza horien bitartez, Berdintasunerako Administrazio Unitateekin eta Emakumerekin sailen arteko lanerako zein tresna bera hobetzeko genero-ikuspegiarekin aurrekontuak lantzeko prozesuan aurrera egin ahal izango da.
- Berdintasunerako Administrazio Unitatearen helburuan aldaketak egin dira, helburu hori modu egokiagoan eta argiagoan formulatzeko.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

- Berdintasunerako Administrazio Unitatea prestakuntzan parte hartzeko garaiz sortu eta abian jarri da.

Kultura eta Hizkuntza Politika

- Genero-ikuspegia bere aurrekontuan sartzeko Hizkuntza Politikak burutu duen proiektu pilotua oso interesgarria iruditzen zaie. Txosten honetarako erabilitako metodologia diseinatzeko Ogasun eta Ekonomia Sailarekin elkarlanean diharduen UPV/EHUren aholkularitza berberarekin ari dira burutzen esperientzia hori.

7.3.4. Hobekuntza-proposamenak

Oro har, aurrekontu-memoria genero-ikuspegitik hobetzea: Helburuak, ekintzak eta genero-arrailak hautematea ahalbidetuko duten adierazleak.

Lehendakaritza

- Genero-zeharkakotasuna sustatzeko erabili beharreko orduen kalkulua sistematizatzea eta definitzea.
- Tarteko eta amaierako erakundeen datuak lortzeko prozesua sistematizatzea.
- Zuzendaritzekin batera prozesuak eta datu-baseak aztertzea, sexuaren arabera bereizitako datuak biltzeko.
- Programaren jarduketan artean agerian jartzea aurrekontu-zuzkidura garrantzitsua duten "Berdintasuneko beste ekintza espezifiko" azpimarragarriei buruzko 4.2. atalean bildutako informazioa.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

- Betetze Mailari buruzko Memoriaren prestakuntza hobetzea, baita aurrekontu-memoriaren helburu bakoitzerako bildutako adierazleen ustiapena ere.
- 4/2005 Legearen 16. artikulua betez, Zerbitzuen Zuzendaritzaren datu-baseetan eta erregistroetan eskuragarri dauden langileen kudeaketari buruzko datuen iraulketa, gurtzaketa, ustiapena eta hedapena hobetzea.
- Arau Teknikoetan adierazitakoa jarraituz, Egitura eta laguntzako aurrekontu-memorian bildutako adierazleak hobetzea. Gainera, banaketa-indizea zein kontzentrazio-indizea kalkulatzeko laga behar dute, hau da, genero-arrailak hautematen laga behar dute. Prestakuntzari lotutako adierazleak ere aztertu beharko dira, prestatutako pertsonen datuak hauen sexuaren arabera bereizita ezagutzeko, eta ez bakarrik ikastaroetara bertaratu direnak sexuaren arabera bereizteko.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

- Beharrezkoa da diru-laguntzen lerroak, hasieratik, estatistikak lortzeko ulertzea.
- Kolektiboen egoera islatuko duten datuak ezagutu behar dira (diagnostikoa), horien ondorioz helburuak planifikatzeko eta helburu horiek zenbateraino gauzatzen diren neurtzeko.

Enplegua eta gizarte-politikak

- Genero-ikuspegia duten aurrekontuak gehitzeko pixkanakako prozesua hasi du sailak. Horretarako, aurrekontuak egiten parte hartzen duten langileak gaitzeko estrategiak beharko dira.
- Zerbitzu bakoitzak, bere helburuetan eta jarduketetan, genero-zeharkakotasuna ezartzeak bere eremuan zenbateraino laguntzen duten aipatu behar du (PGEN- 18 formularioan proposamen tekniko zehatzak barne hartu dira).

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

- Aurrekontu-memoria aztertu da eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko beharrezko aldaketak egin dira.

Ogasuna eta Ekonomia

- Informazio eskuragarria sexuaren arabera xehatzea, horretarako gai denean.
- 4.3.A.1. puntua behar bezala betetzea ahalbidetuko duen Saileko langileen datuak sistematizatzea. Era horretan, diagnostikoa egin (desberdinkerien analisia) eta erantzun-maila analizatu ahal izango dira, programaren eskuduntzen esparruko jarduketan bitartez.
- Aurrekontu-memoriaren helburuetan, ekintzetan eta adierazleetan genero-ikuspegia agerian jartzea, berdintasuna lortzeko egindako ekarpena betetze-memorian analizatu ahal izateko.

Hezkuntza

- Formularioa hobeto betetzeko modua analizatzea eta horretarako neurriak ezartzea.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

- Programen arduradunak prestatzea.

Kultura eta Hizkuntza Politika

- Saileko berdintasun-teknikariaren aholkularitzarekin, maila politiko eta teknikoan lau saio antolatuko dira, aurrekontu-programa genero-ikuspegitik analizatzeko. Horretarako, aholkularitza tekniko kontratatzeke aurrekontua gorde da.

7.4. GAINERAKO PROGRAMEN ANALISIA SAILKA

Tauletan sail bakoitzaren eta hauei atxikitako erakunde autonomoen aurrekontu-programak biltzen dira. Baina kasu guztietan dagokion Egitura- eta Laguntza-programa barne hartzen da. Programa hori aurreko atalean aztertu da.

7.4.1. Lehendakaritza

12. taula. Lehendakaritzaren aurrekontu-programak. Funts-fluxua.

LEHENDAKARITZAREN ETA HONI ATXIKITAKO ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTU PROGRAMAK	FUNTS FLUXUA		
	JASOTZEN DU	%	IGORTZEN DU
LEHENDAKARITZA	24.698.756	% 21	92.694.101
1121. Egitura eta Laguntza	10.696.219		
1311. Kanpo-harremanak	7.966.364		
1312. Garapen-lankidetzak.			45.044.551
3221. Emakumeen aukera-berdintasuna sustatu			5.239.800
4621. Biktimak eta Giza Eskubideak	6.036.173		
4622. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua			1.859.750
5414. Berrikuntza Funtsa			40.550.000
SAILERA ATXIKIAK:			
3223. Emakunde	5.817.000	% 100	
4622. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua	2.056.000	% 100	

Lehendakaritzaren zazpi aurrekontu-programetatik lau beste erakunde batzuetara transferitzen dira:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA) 1312 programa GLEA erakunde publikoa finantzatzeko erabiltzen da.
- Emakunde 3221. programa Emakunde – Emakumearen Euskal Erakunde Autonomoaren programa finantzatzeko erabiltzen da.
- Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua 4622 programa Gogora Erakunde Autonomoaren programa finantzatzeko erabiltzen da.
- Berrikuntza Funtsa 5414 programa Berrikuntza Funtserako erabiltzen da.

Analiza daitezkeen aurrekontu-programak, beraz, ondorengo taulan biltzen dira.

13. taula. Lehendakaritzako eta bere Erakunde Autonomoetako analizatu beharreko aurrekontu-programak.

ANALIZATU BEHARREKO AURREKONTU PROGRAMAK	AURREKONTUA (€)
LEHENDAKARITZA	24.698.899
1121. Egitura eta Laguntza	10.696.362
1311. Kanpo-harremanak	7.966.364
4621. Biktimak eta Giza Eskubideak	6.036.173
SAILERA ATXIKIAK:	
3223. Emakunde	5.817.000
4622. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua	2.056.000

A. LEHENDAKARITZA

- Sailaren beraren programarenak zein atxikitako erakundeen bi programenak aurkeztu ditu, 2017ko aurrekontuenak baino askoz ere analisi-maila handiagoarekin.
- Ahalegin berezia egin da programa bakoitzean eragiten duten berdintasunari buruzko mandatuak eta erantzuteko maila analizatzeko.
- Horiei guztiei garrantzi handia eta ertaina eman zaie, eta ez da egokia ez den edo garrantzi txikia duen helbururik identifikatu.
- Aurrekontu zehatza duten berdintasun-ekintza espezifikoak identifikatu dira 1121. "Egitura eta Laguntza" programan praktikan jartzeko. Gainera:
 - 1311 programan: aurrekontua esleituta duten berdintasun-ekintza espezifikoak esplizitatzen ez diren arren, garrantzitsua da azpimarratzea Lehendakaritzaren Berdintasunerako Agiri Programak Idazkaritzaren plangintzetan genero-ikuspegia gehitzea sustatzeko jarduketak gehituko dituela, bereziki Euskal Erkidegoaren kanpoko esparruan eraginez. Zentzu horretan, formularioan hainbat jarduketa biltzen dira.
 - 4621 programan: aurreko programan bezala, berdintasunaren inguruan edo generoaren ikuspegitik hainbat jarduera gauzatuko dira. Hala ere, jarduera horiek ez dira aurrekontu-memorian esplizituki biltzen, garrantzitsuak diren arren. Dena dela, hurrengo ekitaldiaren aurrekontu-memorian ikusi ahal izateko edo etorkizunean azterketak egiteko kokatuta dagoen aipatutako helburuari eta ekintzari dagokion zenbaketa globalaren gainean jarduera horien aurrekontu-zenbatekoa zehazteko ahalegin handia egin da.

14. taula. Lehendakaritzaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programaren arabera.

LEHENDAKARITZA		
1121. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	57.388
	BAU politikak sustatzeko aurrekontua	5.000
	Ikuskerak	50.600
	GUZTIRA	112.988

Lehendakaritzaren azterketarako hiru programa egokien % 0,46 suposatzen du. Hala ere azpimarratu behar da, Emakunderi finantzatzeko programa kontuan hartzen bada, berdintasuneko ekintza espezifiktara bideratutako funtsen ehunekoa Lehendakaritzaren guztizko aurrekontuaren (117.573.000 euro) % 4,9koa dela.

- Nabarmentzeko aurrerapenak:
 - Genero-ikuspegia duten jarduketetara zuzendutako aurrekontuko partidak eta datuak gehiago zehaztea lortu da.
 - Funts publikoak jasotzen dituzten kolektiboen eta erakundeen diagnostikoan sakondu da, aurrerago analizatzeko garrantzi bereziko informazioa eskainiz.
 - 4621. Biktimak eta Giza Eskubideak formularioa betetzeko lantalde bat osatu da.
- Nabarmentzeko hobekuntzak:
 - Memoria birformatzea helburuak, ekintzak eta adierazleak genero-ikuspegitik definitu ahal izateko.
 - Programen hainbat esparrutan dauden diferentzien eta desberdinkerien datuen eskuragarritasuna eta analisisa zabaltzea eta hobetzea. Adibide gisa: Euskal Erkidegoa kanpoan, pertsona errefuxiatuak, terrorismoaren biktimak,...).
 - Generoarekin lotuta dauden aurrekontuen arloan hauek kudeatzeaz arduratzen diren langileen prestakuntza-prozesuarekin jarraitzea.
- Oraindik definitzeko dauden Azterketen Kabineteko Zuzendaritzaren azterketa propioez gain, 2018an lau azterketen kontratazioa identifikatu da. Guztiak genero-ikuspegitik egingo dira:
 - Giza Eskubideen Urraketei buruzko Txotena (1936-1978) GOGORarekin, Aranzadi Zientzia Elkartearekin, eta Jon Landa Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UPV/EHUko Katedrarekin batera.
 - Argitu gabeko atentatuen biktimei buruzko azterketa (1960-1970).
 - Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutuaren bitartez presoan urrutiratzearen inpaktuaren gaineko txostena.
- Hizkuntzaren analisisa: Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko 1311 "Kanpo Ekintza" eta 1121 "Egitura eta Laguntza" memorien idazketa zuzentzeko proposamenak egiten dira.

B. EMAKUNDE

- Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen funtsezko eginkizuna da EAEko bizitza politikoaren, sozialaren, kulturalaren eta ekonomikoaren esparru guztietan emakumeen eta gizonen berdintasun erreala eta eraginkorra lortzea. Horregatik, bere programak garrantzi handia dauka helburu eta ekintza guztietan Eusko Jaurlaritzaren berdintasuneko politikak EAEn sustatzeko eta ezartzeko.
- Ondorioz, programaren aurrekontu osoa hainbat politika espezifikoetara osatua dago:

15. taula. Emakunderen aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programaren arabera.

AURREKONTU PROGRAMAK	BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
3223. Emakunde	aurrekontu-programa osoa	5.817.000

- Ahalegin berezia egin da programan eragiten duten berdintasunari buruzko mandatuak eta erantzuteko maila zorrotz eta zehatz aztertzeke.
- EAEn dauden genero-arraileen diagnostiko interesgarria eskaintzen bada ere, etorkizunari begira, analisisan gehiago sakondu ahal izateko datuen sistematizazioa hobetzea aurreikusi da. Hautemandako desberdinkeriei programaren jarduketek erantzuten dieten maila ezagutzeko, 2010-2015 epean emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen ebaluazioaren sintesia eskaintzen da.
- Nabarmentzeko aurrerapenak:
 - Formularioa hobeto betetzea.
 - Hobekuntza-alderdiak identifikatu dira eta barne-lanerako estrategiak diseinatu dira formularioa hobeto betetzeko.
- Nabarmentzeko hobekuntzak:
 - Aurrekontu-memoriaren helburu batzuk hobetzeko proposamen zehatzak eskaintzen dira.
 - Desberdinkerien analisiari erantzunez, ondorengo ekintzetan gauzatu beharreko erronka berriak ezagutu dira: erakunde autonomotan eta entitate publikotan berdintasuneko unitateak sortzea sustatzen jarraitu behar da, baldin eta erakunde eta entitate horien eskuduntza-esparruak berdintasunerako politiken aurrerapausoan eragin handia eduki badezake. Halaber, formula egokiak bilatu behar dira eta berdintasun-unitateak sortzea sustatu behar da udal-esparruan eta, batez ere, udal-erri txikienetan; koordinazio-arloan hobekuntza-prozesuak planteatu beharko dira, sortutako egiturek aurrera egiten jarrai dezaten eta egitura horiei buruzagitza-ahalmen handiagoa emateko; politika publikoen multzoan berdintasunaren helburua barne hartzeko oraindik sakontzen jarraitu behar da; halaber, gehiago sustatu eta foru- eta udal-esparruetara gehiago zabaltzeko behar da; esku-hartzearen xede diren politikak sektore anitzekoak eta zeharkakoak direnez, berdintasunean adituak diren langileen prestakuntza zabaltzeko eta bertan sakontzeko beharra egiaztatu da; berdintasun-politiken bilakaeraren hobekuntzetan sakontzen jarraitu behar da, eta, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa eta arreta eskaintzeko programen eta baliabideen esparruan bereziki, elkargunetasuna hobeto landu behar da;

emakumeen autonomian eta generoaz jabetzeko prozesuetan sakontzea beharrezkoa dela dirudi, baina batez ere gizarte- eta politika-ahalduntze prozesuetan oraindik aurrerapauso handiagoak eman behar dira; emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko, behar-beharrezkoa da prebentzioa hobetzea; gainera, arreta berezia eskainiko zaie gure gizartean suspertzen ari diren beste indarkeria-modu batzuei; halaber, emakumeen eta hauen zaintzapean dauden pertsonen —bereziki emakume horien seme-alabak— aurkako indarkeria goiz hautematen eta biktima horiei arreta integrala ematen saiatu behar da, seme-alaba horiek, era berean, euren amen aurka erabilitako indarkeriaren biktimak ere badirelako.

- Programak barne hartzen dituen esparru eta kolektibo desberdinetan, sexu aldagaiaren arabera dauden diferentzien eta desberdinkerien analisi xehatuak egin ahal izateko datuak zabaltzea eta hauen erabilgarritasuna hobetzea. Zehazki, transferentziak eta diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeen inguruko datuen identifikazioa sistematizatu behar da.
- Pixkanakako prozesua denez, datorren ekitaldian barne-estrategia bat beharko da, koordinazio politiko eta teknikoko espazioak sortuz, datuak biltzeko tarteko prozesu koordinatuak sortuz eta, aldi berean, analisi horietan parte hartuko duten pertsona guztientzako prestakuntza-/ekintza-estrategiak sortuz. Estrategia zehaztuko da, baina, gutxienez, hiru elkarriketa-ildo eratu behar dira: Emakunderen zuzendaritzak eta buruzagitzen multzoak parte hartzen duten zuzendaritza-taldearekin; aurrekontuak lantzeko prozesua eta generoaren arabeko alde aurreko inpaktu-ebaluazioa (administrazioa eta azterketak, dokumentazioa eta plangintza) zentralizatzeaz arduratzen diren hiru arloekin; eta, azkenik, diru-laguntza lineen arduradunekin.
- Aurrekontu-teknikari dagokionean, prozesuaren oinarrizko dokumentuen arteko bat etortzea handitu beharko da: gastuen eta sarreraren egoerari buruzko dokumentua (bertan, programaren egitura organikoa, ekonomikoa eta funtzionala, eta jarduketa bakoitzerako aurrekontuko partidak zehazten dira), aurrekontu-memoria eta, azkenik, betetze-mailaren memoria.
- Emakunderen kasuan etengabe egiten ari dira generoaren inguruko edo genero-ikuspegiarekin azterketak eta ikerketak. 2018. urtean errealitatea hobeto ezagutzen eta berdintasun-politikak hobetzen (azterketa propioak eta ikerketa-bekak) lagunduko duten azterketak egitea aurreikusten da.
- Hizkuntzaren analisia: hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da.

C. GOGORA

- Programa garrantzi ertaineko gisa sailkatuta dago. Aldaketa horren arrazoia honako hau izan daiteke: IVAPen laguntzarekin, Emakundek eta Ogasun eta Ekonomia Sailak

koordinatutako genero-ikuspegiarekin, administrazio eta zerbitzuen arduradunak aurrekontuen eraketan parte hartu izana.

- Ez dute berdintasuneko ekintza espezifikorik identifikatzen.
- Memoriaren idazketan ez dira hizkuntzaren joerak identifikatzen.

7.4.2. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

16. taula. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren aurrekontu-programak, generoarekiko egokitasunaren arabera

SAILAREN ETA HONI ATXIKITAKO ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTU PROGRAMAK	ANALISI GABE	ANALIZAGAI, EGOKITASUNAREN ARABERA		
		BAI	%	EZ
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	8.745.210	90.227.231	% 76	19.691.559
1125 - Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa				1.093.559
1211 - Egitura eta Laguntza		10.639.016		
1212 - Zerbitzu Orokorrak		24.501.381		
1213 - Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza		4.418.273		8.693.823
1214 - Informatika eta Telekomunikazioak		33.548.250		
1215 - Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa		14.657.658		
1217 – Erakunde Harremanak		2.462.653		
1218 - Araubide Juridikoa	3.526.774			
4712 – Administrazio Publikoaren Hizkuntza Normalizazioa.				9.904.177
5415 - Berrikuntza Digitaleko Agenda	5.218.436			
SAILERA ATXIKIAK:				
1216. IVAP. Administrazio Publikoko langileen hautaketa eta prestakuntza		8.693.823		
4714. IVAP. Euskalduntzea eta Hizkuntza-normalizazioa,		10.634.177		

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1. atalean

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak 10 programa ditu. Horietako bik atxikitako erakunde autonomorako —IVAP— transferentziak dituzte, euren programak gauzatzeko:

- 1213 “Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza” programaren zati garrantzitsu bat IVAPi transferitzen zaio 1213 “Administrazio Publikoetako langileak aukeratzea eta prestatzea” programa gauzatzeko.
- 4712. Herri Administrazioaren Hizkuntza Normalizazioa programaren aurrekontua, oso-osorik, IVAPera transferitzen da 4714 Euskalduntze eta Hizkuntza Normalizazioko programarako.

Bi kasu horietan programen genero-ikuspegitik analisisia IVAP – Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagokio.

1125 "Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa" programa ez-egoki gisa kalifikatu da. Kasu horretan, 2019ko aurrekontuari begira, haren egokitasuna aztertzea gomendatzen da.

Bestalde, ez du ondorengo programa hauen P18-Gen formularioa entregatu:

- 1218 Araubide Juridikoa. 2019ko aurrekontuetarako formularioa betetzea gomendatzen da.
- 5415 Berrikuntza Digitaleko Agenda. Gobernantza Publiko eta Autogobernua Sailetik Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eskuduntzako aurrekontu-programaren ekintza baterako funtsak jasotzen dira. Beraz, azken horri dagokio P18-Gen formularioa betetzea.

Laburtuz, ondorengo taulan aurkezten da sailaren analizatu beharreko aurrekontua.

17. taula. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta bere erakunde autonomoen analizatu beharreko aurrekontu-programak

ANALIZATU BEHARREKO AURREKONTU PROGRAMAK	AURREKONTUA (€)
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	90.227.146
1211 - Egitura eta Laguntza	10.639.016
1212 - Zerbitzu Orokorrak	24.501.381
1213 - Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza	4.418.188
1214 - Informatika eta Telekomunikazioak	33.548.250
1215 - Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa	14.657.658
1217 – Erakunde Harremanak	2.462.653
SAILERA ATXIKIAK: IVAP	19.328.085
1216. IVAP. Administrazio Publikoko langileen hautaketa eta prestakuntza	8.693.908
4714. IVAP. Euskalduntzea eta Hizkuntza-normalizazioa,	10.634.177

A. GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA

- Sail honetan, genero-ikuspegitik aurrekontu-programak analizatzeko estrategia barne-prozesu bat gautzea izan da, lantalde baten sustapen politiko eta teknikoarekin, eta Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aholkularitzarekin. Horregatik, Sailaren aurrekontu-programa batzuk hobetu direla nabarmentzen da.
- 1212 "Zerbitzu Orokorrak" eta 1214 "Informatika eta Telekomunikazioak" programak, generoari dagokionean, garrantzi txikiko gisa kalifikatu dira. 1215 "Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa" eta 1217 "Erakunde-mailako harremanak" programak garrantzi ertaineko gisa kalifikatu dira. Lau kasu horietan berdintasunari buruzko mandatuaren analisi-maila diferentea da, erakusten duen zehaztasunagatik 1214 "Informatika eta Telekomunikazioak" programa nabarmentzen bada ere.

- Garrantzi handiko gisa baloratu den eta asko hobetu den 1213 “Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza” programatik helburuen, ekintzen eta adierazleen definizioa nabarmentzen da, zehazki bi helburu: 5. “Emakumeen eta gizonen kalitate, bikaintasun eta berdintasuneko printzipioak jarraituz, administrazio orokorrera, haren erakunde autonomotara eta sozietate publikotara atxikitako langileen lan-baldintzak modu eraginkorrean eta efizientean arautzea”. Zehazki, Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako I. Plana ezartzeko Berdintasuneko Batzorde Iraunkorrak erabakitako ekintzen garapena sustatu nahi da. 6. Generoa kontuan hartuz laneko arriskuen prebentzioaren kultura garatzea, Administrazio Orokorrera, bere Erakunde Autonomotara eta sozietate publikotara atxikitako langileen LAN OSASUNEAN positiboki eragiteko. Zehazki, berdintasun-printzipioa laneko arriskuen prebentzioaren esparruan sartu nahi da.
- Nabarmentzeko aurrerapenak:
 - Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Planeko ekintzen esparruan, sentsibilizazio-kanpaina bat kontratatzeko eta gai horretan prestakuntza espezifiko kontratatzeko aukera ikusten da.
 - 1213 programa: aurrekontu-memoria aztertu da, hasierako 11 helburuak 6ra murriztuz, bi helburutan genero-ikuspegia gehituz, berdintasuneko ekintza espezifikotan zehaztuz eta bertara aurrekontua bideratuz.
 - 1214 programa: hizkuntzaren eta/edo komunikatzeko beste elementu batzuen erabilera ez-sexista egokitzeko maila hobetu da, eta dokumentu eta euskarri guztiak prestatzean irudiak sartu dira.
- Nabarmentzeko hobekuntzak:
 - 1212 programa: norberak prestatutako dokumentuetan hizkuntza aztertzea eta zuzentzea, eta aurrekontu-programaren adierazleak genero-ikuspegitik aztertzea.
 - 1213 programa: genero-ikuspegitik helburuak, jarduketak eta adierazleak berriro adieraztea.
 - 1214 programa: langileei hainbat laguntza-tresna ematea eguneroko lanean hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko.
 - 1215 programa: 2018. urtean zehar, zerbitzu elektronikoak eskatzen dituzten pertsonen sexuaren arabera identifikazioa sartuko da.
 - 1217 programa: 2018. urtean erregistroen zerbitzuen aurrean izapideak eskatzen dituzten pertsonen sexu arabera identifikazioa sartuko da, baita haien gobernu-organoen osaera ere.
- Berdintasuneko ekintza espezifikotarako aurrekontu zehatz bat identifikatzen duten bi programa daude:

18. taula. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programaren arabera.

AURREKONTU PROGRAMAK	BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA		
1211 - Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	58.424
	BAU politikak sustatzeko aurrekontua	12.000
1213 - Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza	Berdintasuneko teknikaria	
	I. Planeko ekintzak gauzatzeko aurrekontua	43.000
	GUZTIRA	113.424

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzuen Zuzendaritzak egin ditu Administrazio Orokorreko eta bere organo autonomoetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. plana ezartzeko berdintasuneko teknikari bat jartzeko izapideak. Txosten hau ixtean plazak sortzeko behar den aurrekontuaren diru-hornidura falta da.

Taularen aurrekontua analizatutako (entregatuak eta egokiak) programen % 0,13 da.

B. IVAP - HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

- Bi programak garrantzi ertaineko gisa kalifikatu dira, bi kasuetan helburu gehienak generoarekiko ez-egokitzat jo arren. 2019ko aurrekontuei begira, bi programak hobeto aztertzea komeniko litzateke.
- Aurrerapen nagusi gisa bi programen P18-Gen formularioak betetzea dago.
- 1216 programan bi ekintza espezifiko berri erantsi dira, *Institutuaren argitalpenetan hizkuntza ez sexista erabiltzen dela ziurtatzea eta Administrazioaren aukeraketa-prozesuetan berdintasuna bermatzea*. Gainera, bi ekintza horien adierazleak sexuaren arabera xehatu dira.
- Beste lau ekintzatan, sexuaren arabera bereizitako adierazleak (aukeraketa-prozesuetako epaimahaiak, hainbat prestakuntza-ekintzatako ikasleak), edo berdintasunari lotutako gaiak sartzearekin edo berdintasun-ikastaroekin lotutako adierazleak hartu dira kontuan.
- Neurri zuzentzaile gisa honako hauek planteatu dira:
 - 1216 programa:
 - Gizonen eta emakumeen presentziari buruz prestakuntzan parte hartu dutenen estatistikak egitea.
 - Berdintasunari buruzko prestakuntza berezia sustatzea.
 - Aukeraketa-prozesuen epaimahaietan eta ikerketari lotutako sarietan eta diru-laguntzetan gizonen eta emakumeen presentzia paritarioa bermatzea.
 - Erakundearen argitalpenetan hizkuntza ez-sexista bermatzea.

- Administrazioa sartzeko azterketetan genero-berdintasunari buruzko gaiak sartzea.
- Erakundeak eskaintzen dituen produktu, zerbitzu eta prozesu guztietan haurdunaldiari eta amatasunari lotutako traba guztiak saihestea.
- Sarrera-azterketen emaitzetan generoaren aldagaiaren pisua analizatzea.
- 4714 programa:
 - Hizkuntza-prestakuntzaren arloan genero-ikuspegiko azterketak eta estatistikak egitea.
 - Ebaluazio-epaimahaietan gizonen eta emakumeen presentzia paritarioa bermatzen da.
 - Haurdunaldia eta amatasuna parekatzeko neurriak hartzea.
 - Hizkuntza-ebaluazioaren arloan genero-ikuspegiko azterketak eta estatistikak egitea.

7.4.3. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila

19. taula. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren aurrekontu-programak generoarekiko egokitasunaren arabera.

SAILEN, ORGANISMO AUTONOMOEN ETA PARTZUERGOEN AURREKONTU PROGRAMAK	ANALISIRIK GABE	ANALIZAGARRIA EGOKITASUNAREN ARABERA		
		BAI	%	EZ
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK		889.019.000	% 100	0
5131. Trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketa		240.697.882		
5135 . EAEko Trenbide Sare Berria - Kudeaketa Kredituak		156.237.646		
5136. Bilbo Hegoaldeko Tren Saihesbidea - C. Kudeaketa		5.142.000		
5141. Garraioaren plangintza		6.043.383		
5151. Portuak		19.015.376		
5411. Nekazaritza eta Arrantza Alorreko ikerketa eta garapena		18.763.587		
5413. Teknologia		149.739.301		
5415. Berrikuntza Digitalaren Agenda		18.490.474		
7111. Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren garapena		79.307.048		
7112. Arrantza		19.041.973		
7113. Elikagaien Sustapena eta Kalitatea		20.269.593		
7211. Egitura eta Laguntza		18.819.834		
7212. Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza		103.637.533		
7213. Industria Segurtasuna		5.130.881		
7214. Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia		5.419.250		

7311. Energia eta Meatze Politika eta Garapena		1.210.576		
7613. Nazioartekotzea		22.052.663		

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1 atalean

- Sailak bi aurrekontu-atal ditu, bat Industria eta Azpiegituretarako, eta bestea Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politiketarako. Bietan dago aurrekontu-ataleko teknikari arduraduna. Hala ere, aurrekontuak egiteko prozesuan, eta Sail barruko arazoak direla eta, ezin izan da ez berdintasun-teknikariaren ez industria eta azpiegituretako aurrekontu-arduradunaren laguntza izan. Hori dela eta, 2018ko aurrekontuaren analisia batez ere Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikaren atalari dagokio.
- Azpimarratu behar da aurreko aurrekontuetan baino gehiago analizatu direla aurrekontu-programak, bereziki 7112 "Arrantza" programa, eta biztanleria hartzaileari, desberdintasunak hautemateari eta bitarteko erakundeen identifikazioari buruzko analisi interesgarria egin da.
- Programa guztiak dira garrantzizkoak: hamalau garrantzi ertainekoak, bakarra garrantzi txikikoa (7213 "Industria Segurtasuna") eta bi garrantzi handikoak (5415 "Berrikuntza Digitalaren Agenda" eta 7111 "Nekazaritza eta Landaren eta Itsasertzaren garapena").
- Berdintasun-mandatuak analizatzeko eta horiek programaren helburuekin lotzeko ahalegina egin da.
- Nabarmentzeko aurrerapenak:
 - 2015ean genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko prestakuntza eman zien Sailak bertako langileei. Gainera, langileetako batzuek P18-Gen formularioa betetzeko Emakundek eta Ogasun eta Ekonomia Sailak antolatutako prestakuntzan ere parte hartu dute.
 - Finkatu da txostenetan hizkuntza inklusiboa erabiltzea.
 - Aurrera egin da programen onuradunei buruzko datuak sexuaren arabera bananduta jasotzean.
 - 7112 "Arrantza" programaz gain: arrantza-sektorerako diru-laguntza programetan eta arrantza guneen garapenerakoetan informazioa sexuaren arabera bananduta hobeto jasotzea lortu da (eskaera-ereduan sexuaren aldagaia sartu da). Komeni da aipatzea euskadi.eus web-orrian atal bat jarri dela arrantza-sektoreko langile emakumezkoen kolektiboak, horien elkarteak eta jarduketak bistaratzeko. http://www.euskadi.eus/web01-a2arraku/es/contenidos/informacion/mujeres_mar/es_def/index.shtml.
- Nabarmentzeko hobekuntzak:
 - Planifikazioa behar da, eta, lehenbizi, xede diren kolektiboen hasierako egoera islatuko duten datuak jaso behar dira, jarraian, eta behin helburuak ezarri ondoren, helburu horien lorpena neurtu ahal izateko.
 - 7112 "Arrantza" programaz gain: baloratu behar da abiapuntuko egoera, sektoreari buruzko estatistiketan emakumeak hobeto bistaratzeko, eta hori egitea beharrezkoa da datuak ez daudelako sexuaren arabera behar adina

bananduta eta ez dagoelako berdintasunari buruzko adierazlerik. Laguntza-programekin lotutako estatistikei dagokienez, prestakuntzarako beken programan ere informazioa sexuaren arabera bananduta bildu behar da. Era berean, informazioa sexuaren arabera bananduta bildu behar du arrantzako lizentziak eta kirol-ontzietarako eta profesioaletarako titulazioak kudeatzeko programak.

- Nabarmen egin da aurrera aurrekontu-memorietan datuak sexuaren arabera bananduta jasotzeko eskakizunean.

- Hauek dira sailean identifikatutako politika espezifikoak:

20. taula. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako.

AURREKONTU PROGRAMAK	EKINTZA ESPEZIFIKOA	AURREKONTUA (€)
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK		
7211. Egitura eta Laguntza	BUA kostua	59.863
	BUA politikak sustatzeko aurrekontua	6.000
	GUZTIRA	65.863

Sailaren aurrekontuaren % 0,01 da.

7.4.4. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

21. taula. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren aurrekontu-programak generoarekiko egokitasunaren arabera.

SAILEN, ORGANISMO AUTONOMOEN ETA PARTZUERGOEN AURREKONTU PROGRAMAK	ANALISIRIK GABE	ANALIZAGARRIA EGOKITASUNAREN ARABERA		
		BAI	%	EZ
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	34.871.788	123.495.732	% 13	855.716.480
3111. Egitura eta Laguntza		6.141.346		17.442.381
3121. Gizarteratzea				489.191.548
3121. Gizarteratzea (transferentzia beste erakunde batzuei)	27.400.000			
3122. Immigrazioa		4.483.474		
3123. Gizarte Zerbitzuak		34.581.735		
3124. Familia eta Komunitate Politika		68.096.100		
3211. Enplegua		1.460.266		240.618.416
3222. Gazteria		8.732.811		
3231. Prestakuntza (transferentzia Lanbideri)				108.464.135
3231. Prestakuntza (transferentzia beste erakunde batzuei)	7.471.788			
SAILARI ATXIKIAK: LANBIDE				

3111. Lanbide. Egitura eta Laguntza		27.487.901		
3121. Lanbide. Gizarteratzea		507.811.548		
3211. Lanbide. Enplegua		240.618.416		
3231. Lanbide. Prestakuntza		108.464.135		

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1 atalean

Sailaren aurrekontuaren zati bat atxikitako erakunde autonomoari, Lanbideri, transferitzen zaio. Zehazki:

- 3111 "Egitura eta Laguntza" programaren zati bat Lanbideren "Egitura eta Laguntza" programa finantzatzera bideratzen da.
- 3121 "Gizarteratzea" programa osoa Lanbideren "Gizarteratzea" programara bideratzen da.
- 3211 "Enplegua" programaren zati bat Lanbideren "Enplegua" programa finantzatzera bideratzen da.
- 3231 "Prestakuntza" programa osoa Lanbideren "Prestakuntza" programa finantzatzera bideratzen da.

Lanbideri dagokio, beraz, Enpleguako eta Gizarte Politiketako Sailak transferitzen dizkion funtsen gastua analizatzea.

3231 programaren eta 3121 programaren zati bat transferitzen da organismo autonomoak edo partzuergoak ez direnez analizagarriak ez diren beste erakunde batzuetara, eta horregatik agertzen dira "analisirik gabe" zutabeen.

Ondoko taulan Sailean analizatu behar den aurrekontua dago jasota.

22. taula. Enpleguako eta Gizarte Politiketako Sailean eta hari atxikitako erakunde autonomoetan analizatu behar diren aurrekontu-programen aurrekontua.

ANALIZATU BEHAR DIREN AURREKONTU PROGRAMAK	AURREKONTUA (€)
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	123.495.732
3111. Egitura eta Laguntza	6.141.346
3122. Immigrazioa	4.483.474
3123. Gizarte Zerbitzuak	34.581.735
3124. Familia eta Komunitate Politika	68.096.100
3211. Enplegua	1.460.266
3222. Gazteria	8.732.811
SAILARI ATXIKIAK: LANBIDE	884.382.000
3111. Lanbide. Enplegua eta Gizarte Politika. Egitura eta Laguntza	27.487.901
3121. Lanbide. Gizarteratzea	507.811.548
3211. Lanbide. Enplegua	240.618.416
3231. Lanbide. Prestakuntza	108.464.135

A. ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK

- Nabarmentzekoak dira aurrekontu-programen analisiaren sakontasuna eta aurrekontu-memorietako batzuetan analisira hurbiltzeko zuzeneko eta zeharkako erakunde batzuen ahalegina.
- Programa guztiak garrantzi handikotzat jo dira. Programa guztien artetik 3111 "Egitura eta Laguntza" programan bakarrik hauteman dira garrantzi txikiko helburuak.
- Kasu guztietan analizatu dira berdintasun-mandatuak, horiek programa bakoitzarekin duten lotura eta betetzen diren.
- Hobekuntza-proposamen orokor gisa, planteatzen da aurrekontuak egiten parte hartzen duten langileak genero-ikuspegia inplementatzeko gaitzea. Gainera, proposatzen da sailen artean koordinatuta jardutea erakundeei datuak eskatzeko bidea arautzeko eta formularioa egoki betetzen lagunduko duen informazioa bildu eta tratatzeko erreminta bateratuak diseinatzeko.
- Programen analisia pixkana egitea planifikatu dute, genero-ikuspegitik horietako ekintzek duten garrantzia kontuan hartuta. Alde horretatik, hauek aukeratu dira 2018ko aurrekontuak analizatzeko:
 - 3122 programa: genero-identitateari eta askatasun afektibo-sexualari buruzko politiketako helburu eta ekintzak; Biltzen – Integratzaileko eta Kulturen Arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuak garatutako jarduketak eta helburuak, immigrazioari, kulturen arteko bizikidetzari, dibertsitate afektibo-sexualari eta genero-identitateari buruzkoak; eta emakume etorkinen eta emakume ijitoen ahalduntzea.

Berdintasunean eragina duten eta aurrekontu orokorrangoetan jasota dauden jarduketan gastua kalkulatzeko ahalegina egin da. Hauek dira identifikatutako berdintasun-ekintza espezifikoak:

23. taula. 3122 "Immigrazioa" programaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

3122. Immigrazioa	Berdin Zerbitzua	215.000
	Unibertsitate Masterra, sexu, familia eta genero dibertsitateari buruzko irakasgaia (gutxi gorabeherako kostua)	2.765
	Afektibitate eta sexu, familia eta genero dibertsitateari buruzko sentsibilizazio-programa	109.000
	Zinegoak zinema-jaialdia (gutxi gorabeherako kostua)	27.900
	Biltzen	37.457
	GUZTIRA	392.122

2017an Ikuspegi - Immigrazioaren Behatokiaren 66. Begirada, "Lan merkatua eta emakume etorkina", argitaratu da.

- 3123 programa: garrantzirik handiena duten helburuak eta ekintzak hautatu dira, hau da, genero-indarkeriaren biktimen arretarekin lotuta daudenak, zuzendaritza honen ekintza zuzenekoak baitira. Era berean, kontuan hartu dira hirugarren sektoreko erakundeek pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin gauzatu behar diren esku-hartze sozialeko jardueretarako jasoko dituzten diru-laguntzak pertsonen autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sustatu eta babesteko, batez ere honako arlo hauetakoak: gizarte-zerbitzuak; gizarteratzea; familiaren babesa; haurrak eta nerabeak zaintzea eta babestea; etorkinen gizarteratzea eta, orokorrean, kultura artekotasuna; adinekoak zaintzea eta babestea; mendekotasun-egoerak eta, orokorrean, desgaitasun-egoeran dauden pertsonak zaintzea eta babestea; askatasun eta dibertsitate afektibo-sexuala. Era berean, kontuan hartu dira Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren eskumenekoak diren jarduketa-arloetako gizarte-intereseko proiektuak finantzatzeko diru-laguntza nominatiboak ere.

Biztanleria hartzaile zuzenaren eta kolektiboen analisi zehatza eta egoeraren diagnostikoa egin da.

Jarduketek desberdintasunei zein mailatan erantzuten dieten baloratzeari dagokionez, besteak beste, ordainketa bakarreko diru-laguntzak eskatzen eta jasotzen dituzten emakumeen kolektiboari buruzko informazio zehatza eman da. Eta etxeko indarkeriaren edo sexuan oinarritutako indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko zerbitzua (SATEVI) jasotzen duten pertsonen buruzkoa ere bai.

Etorkizunera begira pixkanaka gero eta jarduketa gehiago analizatuko dira. Identifikatutako jarduketa espezifikoak analizatutako helburu eta ekintzei bakarrik dagozkie, hau da, ez dagozkie programako guztiei.

24. taula. 3123 "Gizarte Zerbitzuak" programaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

3123. Gizarte Zerbitzuak	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko telefonoa	1.100.000
	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako diru-laguntzak	411.928
	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Zerbitzu Espezializatuko langileak (langileen kostua)	109.729
	Hirugarren sektorerako diru-laguntzen esparruan, emakume ijitoen elkarteak - elkarte interbentzioko proiektuak diruz laguntzea (gutxi gorabeherako kostua)	45.636
	Hirugarren sektoreko erakundeei zuzentzen zaien urteroko deialdiaren bidez, gizarte-bazterkeria egoeran dauden emakumeei zuzendutako elkarte interbentzioko programa eta proiektuetarako diru-laguntzak (gutxi gorabeherako kostua)	135.776
	Gizarte-interbentzioko jardueretarako laguntzen esparruan prostituzioaren arloko proiektuetarako diru-laguntzak (gutxi gorabeherako kostua)	83.466

	Hirugarren sektoreko gizarte-interbentzioko jardueretarako laguntzen esparruan guraso bakarreko familiei zuzendutako zaintza-proiektuetarako diru-laguntzak (gutxi gorabeherako kostua)	64.205
	GZESri buruzko txostena, emakumeen eta horien bizi-baldintzetako eraginaren aldekoa (gutxi gorabeherako kostua)	21.000
	Hirugarren sektoreko gizarte-interbentzioko jardueretarako laguntzen esparruan, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako diru-laguntzak (gutxi gorabeherako kostua)	54.163
	GUZTIRA	2.025.903

Hobekuntza-proposamen gisa planteatzen da aurrekontuak egiten parte hartzen duten langileak genero-ikuspegia inplementatzeko gaitzea. Gainera, proposatzen da sailen artean koordinatuta jardutea erakundeei datuak eskatzeko bidea arautzeko eta formularioa egoki betetzen lagunduko duen informazioa bildu eta tratatzeko erreminta bateratuak diseinatzeko.

2018an amaituko dira orain abian dauden genero-ikuspegiari buruzko bi azterlan. Horietako bat aldizkako txosten bat da, eskaera-premian eta horrek haren baldintzetan duen inpaktuan eragiten duten faktoreak (diskriminazio anitza, pobreziaaren feminizazioa, emakumeen bizi-itzaropena, zaintza ez-formala bere gain hartzea, etb.) analizatzeko. Eta bigarrena emakumeen aurkako indarkerian inplikaturik dauden zerbitzuen eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko azterlan bat da.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren esparruan, aurreikusita dago zaintzaileek ematen duten laguntzarekin, horien egoerarekin, gogobetetasunarekin, laguntza-premiekin eta zaintza-ereduarekin edo ereduaren bilakaerarekin lotutako ikerketa-lerro espezifikoak ezartzea.

- 3124 programa: familiako bizitza eta lana bateragarri egiteko politikari buruzko helburuak eta jarduketak, genero-berdintasunaren esparruan eraldaketa-ahalmen handiagoa dutela eta.

Identifikatutako ekintzak bi multzotan bereizten dira. Multzo bat argi eta garbi dagokie berdintasun-planean jasotako politika espezifikoari; eta bestea, seme-alabak zaintzeko eta mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu eta/edo lanaldia murriztu ahal izateko langileentzako laguntza guztiei.

Eztabaidagarriak dira emakumeengan duten eragin gaiztoagatik; izan ere, batez ere emakumeek baliatzen dituzte, eta horrekin areagotu egiten da gizonekiko soldata-arraila eta penalizatu egiten da haien ibilbide profesionala. Hau da:

- Seme-alabak zaintzeko lanaldia murriztu edo eszedentzia hartu duten langileentzako laguntzak.

- Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko lanaldia murriztu edo eszedentzia hartu duten langileentzako laguntzak.
- Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeako laguntzak.

Hala ere, laguntza horiek ematen diete erantzuna premia praktikoei, baina ez estrategikoei.

- Eszedentzia hartu duten edo lanaldia murriztu duten langileentzat diru-laguntzak emateak zilegitasun handiagoa ematen dio eskubidea gauzatzeari enpresa pribatuen esparruan (ez baita beti erraza izaten).
- Bateratze erantzunkideari eta pertsonen zaintzari, bateratze-neurrien onurei eta kostuei buruzko eztabaida soziala jartzen du agerian.
- Neurriak gauzatzean generoen artean dauden desberdintasunei eta emakumeek eta gizonek neurriei (eta laguntzei) modu ekitatiboan heltzea lortzeko zailtasun izugarriei buruzko irudi erreala izatea ahalbidetzen digu. Helburu hori lortzeko ahalegina egin da publizitate-kanpainen bidez, gizonen aldeko diskriminazio-neurri positiboen bidez,... baina ez da arrakasta handirik izan.

Eszedentzia hartzea eta lanaldia murriztea berez ez dira neurri erabat erantzunkideak eta horien helburua ez da genero-berdintasuna, baina emakumea lan-munduan mantentzen laguntzen duten neurritzat har daitezke, iraganean halako familia-egoeretan lan-mundua utzi egiten zutela kontuan hartuta.

Eztabaida hori kontuan hartuta, eta berdintasun-ekintza espezifikoak kalkulatzeko, seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeako diru-laguntza bakarrik hartu da kontuan, ekintza hori jasota baitago Berdintasunerako Planean neurri argi eta garbi erantzunkidetzat hartzen denez diru-laguntzak jasotzeko baldintzetako bat aitzak eta amak lan egitea izanik, horrek lagundu egiten duen aldetik emakumea lan-munduan mantentzen horrek berekin dakartzan inplikazio guztiekin (soldata, garapen profesionala...).

24. taula. 3124 "Familia eta Komunitate Politika" programaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila.

3124. Familia eta Komunitate Politika	Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeako laguntzak	400.000
---------------------------------------	--	---------

	Gurasotasun positiboa trebetasunak eta konpetentziak garatzeko. Familiekin harremanetan dauden profesionalentzako online ikastaroa.	18.150
	Bateratze erantzunkidea – CONCILIA +. Enpresei eta langileei aholku emateko erreminta berriak txertatzea	15.000
	Enpresetan bateratze erantzunkidea sustatzeko neurriak abian jartzea. Bateratze-neurriak implementatzeko erreminta sortzea.	108.900
	GUZTIRA	542.050

Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileei eta mendetasun-egoeran edo osasun-egoera larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileei lana eta familia bateragarri egiteko ematen zaizkien diru-laguntzetarako aurreikusitako kopurua 32.177.100 eurokoa da.

Hurrengo analisietarako proposatzen da aurrera egiten jarraitzea FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKA programan jasotako gainerako helburuetan, eta, horretarako, analisia egingo duten eta haien lan-kargan eginkizun hori aurreikusita duten langileak prestatu behar dira.

Gainera, eta hurrengo ekitaldiei eta informazio erreala lortzeari begira, sistematizatu egin beharko litzateke erakundeetatik behar den informazioa, eta, aldi berean, kontratatzen direnean edo diru-laguntza ematen zaienean bete behar duten formulario bat prestatu beharko litzateke.

Neurri zuzentzaile hauek gomendatzen dira:

- Aurrekontuak egiten parte hartzen duten pertsonak aurrekontu publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko gaitzea.
- Txostenaren interbentzio-esparruko gaikuntza-jarduketetan (esate baterako, gurasotasun positiboa) komeniko litzateke aipatzea ea ari diren txertatzen bertan genero-ikuspegia eta/edo berdintasun-jarduketak.
- Aurrekontu-programan jasota badago arauak lantzea, horietan genero-eraginaren analisia egin behar dela jasotzea.

2017an Familiei laguntzeko erakundeen arteko III. Planaren ebaluazioa egin da, eta ebaluazio horren baitan bateratze-politika analizatu da eta familian eta haurtzaroan inbertitzeko euskal estrategia prestatu da, oinarritzko balioen artean dituen emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna eta bikoteko bikideen erantzunkidetasuna.

2018ko ekitaldirako aurreikusten da Familiei laguntzeko erakundeen arteko IV. Plana egitea, AFAErekin gurasotasun positiboari buruzko prestakuntza ematea eta, azkenik, haurtzaroari buruzko adierazleak eguneratzeko azterlana egitea.

- 3211 programa: programak potentziala duen arren, aurrekontu-memorian berdintasunaren aldeko eta bizitza pertsonala eta lana bateragarri egiteko ekintza bakarra aipatzen da. Ez du aurrekontu espezifikorik esleituta.

Hobekuntza-proposamen gisa ezinbestekotzat jotzen da maila anitzeko prozesu batean lan egitea, eta neurri honetan modu antolatuan aurrera egiten lagunduko duen informazio- eta gaikuntza-prozesuan programa bakoitzaren aurrekontu-memoriak egiteko erantzukizuna duten politikari eta teknikariak eta sail guztietako berdintasun-unitateak sartzea. Aldi berean, proposatzen da enplegu-eta gizarteratze-planari buruzko planifikazio, ebaluazio eta jarraipenei dagokienez, genero-ikuspegia txertatzeari aipamena egitea.

EGFren 2014-2020 aldirako Euskadiko Programa Operatiboaren genero-ikuspegidun ebaluazioa egin da. 2018rako edo 2019rako aurreikusten da EGFren 2014-2020 aldirako Euskadiko Programa Operatiboaren komunikazio-estrategiaren genero-ikuspegidun ebaluazioa egitea.

- 3222 programa: aurreko programaren kasuan bezala, potentziala duen arren honen aurrekontu-memorian ez da jaso berdintasun-jarduketa espezifikorik.

Aurrekontu-memoria Saileko berdintasun-teknikariaren eta arloko arduradunaren artean analizatu dute. Hobekuntza-neurri hauek proposatzen dira:

- Sentsibilizazioari buruzko helburuak, ekintzak eta adierazleak eta/edo zuzendaritzaren eta Beldur Barik programaren edo haren eta gazteei zuzentzen zaizkien eta indarkeria matxistarekin zerikusia duten bestelako ekimenen arteko lankidetzarekin lotuta gaikuntza-ekintzak txertatzea.
- Euskadiko Gazteak Lankidetzan/Auzolandegiak programen baitan generoaren arloan egiten diren sentsibilizazio-ekintzak/gaikuntza-moduluak bistaratzea.
- Gazteen Euskal Behatokiaren analisi estatistiko guztietan genero-adierazleak txertatzen direla zehaztea / Ekitaldi batean gaiari buruzko azterlan edo analisisa espezifiko bat egin behar bada, aurrekontu-memorian aipatzea.
- Aurrekontu-programako diru-laguntza lerroetan genero-ikuspegia baloratzen dela zehaztea.
- Araudiak gauzatzen direnean genero-eraginaren ebaluazioa ere egin behar dela zehaztea.
- IV. Gazte Plana egiten denean berdintasunaren helburua aktiboki hartuko dela kontuan zehaztea.

Azkenik, Gazteen Euskal Behatokiak aurreikusten du gazteei buruzko 4 azterlan egitea, guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta.

Txostenaren testuan hizkuntza zuzentzeko proposamena egiten da.

- 3111 programa. Hauek dira "Egitura eta Laguntza" programako politika espezifikoak:

25. taula. 3111 "Egitura eta Laguntza" programaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK		
3111. Egitura eta Laguntza	BUA kostua	59.863
	BUAren politikak sustatzeko aurrekontua	10.000
	GUZTIRA	69.863

B. LANBIDE

26. taula. Lanbiden analizatu behar diren aurrekontu-programak egokitasunaren arabera.

ANALIZATU BEHAR DIREN AURREKONTU PROGRAMAK	AURREKONTUA (€)
SAILARI ATXIKIAK: LANBIDE	884.382.000
3111. Lanbide. Enplegua eta Gizarte Politikak. Egitura eta Laguntza	27.487.901
3121. Lanbide. Gizarteratzea	507.811.548
3211. Lanbide. Enplegua	240.618.416
3231. Lanbide. Prestakuntza	108.464.135

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1 atalean

Aurreko aurrekontuarekin alderatuta, aurrera pausorik handiena izan da oraingoan lau formularioak aurkeztu izana.

Guztietan analizatzen dira programak eta berdintasun-mandatuak, eta generoarekiko garrantzi gorenaren ematen zaie.

Datozen ekitaldietan pixkanaka gehiago analizatuko da.

3111 "Egitura eta Laguntza" programak honako berdintasun-ekintza espezifikoak jasotzen ditu:

27. taula. Lanbideren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako.

AURREKONTU PROGRAMAK	BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
3111. Lanbide. Enplegua eta Gizarte Polit. Egitura eta Laguntza	BUA kostua	58.514
	Plana ebaluatze eta kudeatzeko aurrekontua	50.000
	GUZTIRA	108.514

Lanbideren, Erakunde Autonomoaren aurrekontuaren % 0,01 da.

7.4.5. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

28. taula. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren aurrekontu-programak generoarekiko egokitasunaren arabera.

SAILEN, ORGANISMO AUTONOMOEN ETA PARTZUERGOEN AURREKONTU PROGRAMAK	ANALISIRIK GABE	ANALIZAGARRIA EGOKITASUNAREN ARABERA		
		BAI	%	EZ
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA		168.529.998	% 82	37.400.002
4312. Etxebizitza		126.977.301		
4313. Lurralde Antolamendua		7.942.109		
4420. Egitura eta Laguntza		6.034.255		
4421. Ingurumenaren Babesa		27.576.333		
5121. Uraren Plangintza eta Administrazioa				37.400.002

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1 atalean

Sailaren 5 programa horietako 5121 programan ez da egokia, URARA transferitzeari bakarrik baitagokio.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari ondoko taulan jasota dagoen aurrekontua analizatzea dagokio.

29. taula. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean analizatu behar diren aurrekontu-programak.

ANALIZATU BEHAR DIREN AURREKONTU PROGRAMAK	AURREKONTUA (€)
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	168.529.998
4312. Etxebizitza	126.977.301
4313. Lurralde Antolamendua	7.942.109
4420. Egitura eta Laguntza	6.034.255
4421. Ingurumenaren Babesa	27.576.333

Genero-ikuspegitik analizatzea egoki diren lau programei dagokienez, nabarmentzekoak dira horietako bakoitzaren biztanleria hartzailean dauden desberdintasunen analisia eta berdintasun-mandatuaren analisia. Horietako bi (4312 eta 4421) garrantzi ertainekotzat jo dira eta beste bi (4313 eta 4420) garrantzi handikotzat.

Aurrerapen orokor gisa, azpimarratu behar da Saileko langileak gehiago inplikatu direla P18 Gen formularioak betetzen.

- 4312 programa: ez da hauteman aurrekontudun berdintasun-ekintza espezifikorik. Dena den, gauzatzen dira ekintzak Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioaren eta

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurkako erakundeen arteko II. Akordioaren esparruan.

Biztanleria hartzaile zuzenaren eta kolektiboen analisi zehatza eta egoeraren diagnostikoa aurkeztu dira.

Etxebizitzako Behatokiak 2017an argitaratu dituen hainbat txostenetan txertatu da genero-ikuspegia. Nahiz eta 2018rako ez den aurreikusten azterlanik kontratatzea, azterlanetan genero-ikuspegia ahal den neurrian txertatzeko ahalegina egingo da.

Txosteneko hizkuntzan zuzenketak egin dira.

- 4313 programa: "Hirigintza eta Hiri-berritzea" ekintzan berdintasun-ekintza espezifiko bat identifikatu da, udalentsako diru-laguntza lerro baten bidez.

Ikusten da aurrera egin dela, eta ekitaldi honetan jarraitu egingo da lanean lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren esparruan hautemandako desberdintasunei erantzuna emateko, bai udalei emandako diru-laguntzen bidez udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txerta dezaten, bai LAAetan eta hiri-berritzeko eta hiri-habitatetako proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko lan-prozesuen bidez. Bestalde, formularioa betetzeko lantaldeak eratu dira.

- 4421 programa: programaren jarduketa-esparruan hautemandako desberdintasunen diagnostiko zehatza aurkeztu da. Aurrekontua banakatu den arren, berdintasun-politika espezifiko bakarra hauteman da. Hala ere, Sailaren Berdintasunerako Dokumentu-Programak (orain arteko ibilbidea jarraituta) barne hartuko ditu ingurumenaren arloko plangintzetan genero-ikuspegia txertatzea sustatzeko jarduketak, bereziki ingurumen-hezkuntzaren esparruan. Sailak Ingurumen atalean 4 pertsona ditu izendatuta beren eginkizunen artean berdintasun-gaiak ere jorratzeko.
- Hauek dira Sailak identifikatu dituen berdintasun-politika espezifikoak:

30. taula. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako.

AURREKONTU PROGRAMAK	BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA		
4313. Lurralde Antolamendua	udalentsako diru-laguntza udalaren plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko	200.000
4420. Egitura eta Laguntza	BUA kostua	58.067
	Plana ebaluatzeko eta kudeatzeko aurrekontua	6.000
	GUZTIRA	264.067

Sailaren aurrekontu egokiaren % 0,01 da.

7.4.6. Ogasun eta Ekonomia Saila

31. taula. Ogasun eta Ekonomia Sailaren aurrekontu-programak generoarekiko egokitasunaren arabera.

SAILEN, ORGANISMO AUTONOMOEN ETA PARTZUERGOEN AURREKONTU PROGRAMAK	ANALISIRIK GABE	ANALIZAGARRIA EGOKITASUNAREN ARABERA		
		BAI	%	EZ
OGASUNA ETA EKONOMIA		38.051.603	% 75	12.702.397
5111. Eustat				11.708.397
6110. Egitura eta Laguntza		6.842.332		
6111. Ekonomia eta Gastu Publikoa		9.499.507		
6112. Zerga-politika		3.165.163		
6114. Ondare eta Kontratazioa		8.109.089		
6115. Lehiaren Euskal Agintaritza				994.000
6311. Finantza-politika		10.435.512		
SAILARI ATXIKIAK:				
5513. Euskal Estatistika Erakundea - Eustat		12.994.000	% 100	
6115. Lehiaren Euskal Agintaritza		1.220.000		

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1 atalean

Sailaren bi aurrekontu-programa atxikitako erakunde autonomoei, hau da, Eustati eta Lehiaren Euskal Agintaritzari, transferitzen zaizkie horiek finantzatzeko. Erakunde horiei dagokie, beraz, jasotako zenbatekoak analizatzea.

32. taula. Ogasun eta Ekonomia Sailean eta hari atxikitako erakunde autonomoetan analizatu behar diren aurrekontu-programak.

ANALIZATU BEHAR DIREN AURREKONTU PROGRAMAK	AURREKONTUA (€)
OGASUNA ETA EKONOMIA	38.051.603
6110. Egitura eta Laguntza	6.842.332
6111. Ekonomia eta Gastu Publikoa	9.499.507
6112. Zerga-politika	3.165.163
6114. Ondare eta Kontratazioa	8.109.089
6311. Finantza-politika	10.435.512
SAILARI ATXIKIAK:	
5513. Euskal Estatistika Erakundea – Eustat	12.994.000
6115. Lehiaren Euskal Agintaritza	1.220.000

A. OGASUNA ETA EKONOMIA

Sail honi dagokionez garrantzizko alderdi bat nabarmendu behar da: 2017ko aurrekontuan ez bezala, aurrekontu-programa guztiak jo dira generoarekiko egokitze, nahiz eta horietako hiruk generoarekiko garrantzi txikia duten (6112 "Zerga-politika" eta 6311 "Finantza-politika"). Kasu guztietan identifikatu dira berdintasun-mandatuak eta analizatu da programako jarduketekin zein mailatan betetzen diren.

- 6111 "Ekonomia eta Gastu Publikoa": programa honen baitan diseinatzeko eta gauzatzen da EAEko aurrekontu orokorren proiektua, eta horregatik ematen zaio garrantzi-maila gorena. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzako teknikari batek parte hartu du genero-ikuspegia duten aurrekontuak egiten Saileko berdintasun-teknikariarekin batera. Nabarmen egin da aurrera helburuen analisian, eta bi baino ez dira ez-egokitzat jo. Hala ere, programa osoan ez da berdintasun-ekintza espezifiko bakar bat ere identifikatu. Helburuz helburu analizatu da desberdintasunei zein mailatan erantzuten dieten. Aurrerapen gisa, azpimarratuko dugu emakumeak eta gizonak sistematikoki banantzen direla Lan Merkatuaren adierazleetan eta euskal ekonomia analizatzeko eta ekonomiaren jarraipena egiteko hiru hilabetez behin eta urtean egiten diren argitalpenetan. Neurri zuzentzaile hauek proposatzen dira:
 - 6111 programan, helburuak/ekintzak/adierazleak genero-ikuspegitik landutako planifikazio egoki batera moldatzea.
 - Estatistika-erakundearen helburuak programaren eta Sailaren premietara egokitzea.
 - Berdintasun Unitate Administratiboarekin (BUA) batera, 6111 programako jarduketa-arloetan (aurrekontuak eta ekonomia) berdintasuneko prestakuntza proposatzea.
 - Azterlanetan, txostenetan eta agirietan: erabilgarri dauden datu egoki guztiak erabiltzea (estatistika-institutuak, hedatutako datuak eta zifrak, argitatutako azterlanak) sexuaren aldagaiaren arabera dauden desberdintasun guztien analisi xehatua egin ahal izateko.
 - *Ekonomiaz* aldizkariaren proiektio inklusibo handiagoa lortzeko, genero-ikuspegia iraunkortasunez sustatzen jarraitzea.
 - Hizkuntzaren eta/edo bestelako komunikazio-elementuen erabilera ez-sexista sustatzea.
 - Euskal Estatistika Erakundeari (EUSTAT) genero-ikuspegidun eragiketa berriak eskatzea Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritzaren lanetarako.
 - P-19-Gen formularioa txertatzea aplikatibo berrian hura betetzea errazteko.
- 6112 "Zerga-politika": Ez-egoki izatetik egoki izatera pasatu da. Neurri zuzentzaile hauek proposatzen dira:
 - 6112 programaren esparruan egindako azterlanen eta estatistiken iturri diren beste administrazio batzuek ematen duten informazioa sexuaren arabera bananduta presta dadila eskatzea. Bereziki Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratuari dagokionez.

- Euskadiko Ekonomia Arduralaritzaren Epaitegiaren kudeaketarako aplikazio informatikoan erreklamaziogileen sexua identifikatuko duen eremua sartzeko aukera aztertzea, gero informazio hori ustiatu ahal izateko.
 - Komunikazioetan hizkuntza ez-sexista erabiltzeko jarraibideak hedatzea eta idazki eta komunikazio ofizialetan kontrol-prozedurak normalizatzea.
 - *Zergak* aldizkariaren testuak gainbegiratzearan genero-ikuspegia sartzeara hizkuntzaren erabilera sexista ezeztatzeko eta hautemandako erabilpen okerra zuzentzeko.
 - Egiaztatzea zerga-hezkuntzarako zerbitzu-kontratuaren esleipendunak sexuaren arabera banaketa txertatzen duela proiektuaren ezarpen-mailari buruzko aurrerapen-txostenetan eta aurkeztu behar duen behin betiko txostenean, kontratazio-espedientearen pleguetan jasota dagoenari jarraituta.
 - 6112 programaren ardura duten zuzendaritzetan ordezkariak duten kide anitzeko erakundeen osaketa aztertzea emakumeen eta gizonen arteko oreka ebaluatzeko.
 - Emakumeen parte-hartzea lehenestea desoreka hautematen denean eta posible denean.
 - Kide anitzeko organoetan parte hartzen duten gainerako erakunde eta organismoek ohartaraztea komeni dela genero-ikuspegia txertatzea organo horietan parte hartuko duten kideak hautatu eta izendatzeko irizpideetan. (4/2005 Legearen 20.4 artikulua).
- 6114 "Ondare eta Kontratazioa": aurrerapenei dagokionez, hauteman da oraindik ez dela inplementatu emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintza berezietan arreta jartzen duen pleguetako klausularen betetze-mailari buruzko inkesta, eta, era berean, oraindik ez dira garatu berdintasun-klausulak barne hartzen dituzten kontratuei buruzko datuen erabilgarritasuna hobetzeko erreminta informatikoak. Hobekuntza-neurri gisa proposatzen da garapen informatikoak ezartzea administrazioko kontratuetan berdintasun-klausulak hedatu eta txertatzeko, bai eta ahal den neurrian informazioa bananduta lortzeko ere.
 - 6311 "Finantza-politika": aurrekontu-programa egiteko prozesuan parte hartu duen pertsonetako batek genero-ikuspegia duten aurrekontuak egiteko prestakuntzan parte hartu du. Ez-egoki izatetik egoki izatera pasatu da. Nahiz eta garrantzi txikikotzat jo den, finantziario-lerroen biztanleria hartzaile zuzenaren egoerari eta tarteko erakundeei buruzko diagnostikoa aurkeztu da. Aurrerapenei dagokionez, egiaztatu da analizatzen direla BGAEek igorritako datuak gobernu-organoetako paritate-printzipioaren jarraipena egiteko.

Hauek dira sailean aurrekontu propioa duten berdintasun-ekintza espezifikoak:

33. taula. Ogasun eta Ekonomia Sailaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako.

AURREKONTU PROGRAMAK	BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
OGASUNA ETA EKONOMIA		
6110. Egitura eta Laguntza	BUA kostua	56.708
	BUAren politikak sustatzeko aurrekontua	35.000
	GUZTIRA	91.708

Sailaren aurrekontu egokiaren % 0,22 da. Berdintasun-politikak sustatzeko funtsa batez ere bideratuko da P-Gen metodologia hobetzeko aholkularitza teknikoetara eta Emakunderen baitan "Genero-ikuspegia duten aurrekontuak" izeneko Lantalde Teknikoa dinamizatzen.

B. EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA – EUSTAT

Eustateko bi teknikarik parte hartu dute genero-ikuspegia duten aurrekontuak egiteko prestakuntzan, eta horietako bat berdintasun-teknikaria izan da. Horren emaitza izan da aurrekontu-programa askoz ere gehiago analizatu izana.

Azpiarratu behar da zehatz-mehatz analizatu dela estatistika-programatik berdintasun-mandatuak bete diren.

Garrantziaren balorazioa txikia izatetik handia izatera pasatu da. Ez da hauteman helburu ez-egokirik, baina ezta berdintasun-ekintza espezifikorik ere ez ataletarako ez plaza zehatzetarako. Hala ere, jaso da, eragin praktikoetarako, pertsona baten eginkizunen artean dagoela berdintasun-politikak inplementatzea, eta horrek erraztu egin du honako taulan jasotako informazioa:

34. taula. Eustaten aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako.

AURREKONTU PROGRAMAK	BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
5513. EUSTAT	berdintasun-zereginak dituen estatistika-teknikaria	56.708
	'Webguneko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunaren Atala' izeneko estatistika-eragiketa	45.500
	GUZTIRA	102.208

Eustaten aurrekontu osoaren % 0,79 da.

Hautemandako desberdintasunei programak zein mailatan erantzuten dien jakiteari dagokionez, bere izaera instrumentala eta gizartearen errealitatea hobeto ezagutzen lagundu dezaketen datuak bildu, baliozkotu eta hedatzeko funtzio eskusiboa azpimarratzen dira. Eginkizun bakar hori, halere, kontraesanetan dago formularioaren 3.1 puntuan aurkezten den programaren analisiarekin, garrantzia esleituta eta lan-proposamenak gauzatu egonik; jarraian daude zehaztuta:

- 2018-2022 aldirako Berdintasun Plana Eustaterako.
- Estatistika-eragiketen urteko ebaluazioan (DESAP) genero-ikuspegia sartzea hobekuntza moduan. Definizioak ahaztu gabe.
- Eragiketa berriei buruzko informazioa txertatzea berdintasunari buruzko atalean.
- Sexuaren aldagaia sartzea lehendik dauden tauletan.
- Sexuaren aldagaia gehitzea posible den eragiketa-aula guztietan.
- Eustaten webguneko hizkuntza aztertzen jarraitzea.

- Definizioetako hizkuntza genero-ikuspegitik aztertzea teknikariek estatistika-eragiketetako web-elementuak analizatzeko esparruan.
- Gizonen eta emakumeen egoerari buruzko edukia duten prentsa-oharren kopurua handitzea.
- Interneten protagonismoa ematea berdintasunaren atalari, gizarte-sareen bitartez eduki adierazgarriak azpimarratuta. Prentsako teknikariak astero hedatzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko estatistika-mezuren bat erabilgarri dauden tauletan oinarrituta, BUAn prestatua.
- Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunaren ataleko informazioarekin argitalpen digital espezifiko bat planteatzea, beste institutu batzuen (esate baterako, Suediakoa) antzeko formatuarekin. Urtekoa.

Proposamen zuzentzaile gisa, eta aurreko guztia kontuan hartuta, proposatzen da hobekuntzak egitea erakundearen helburuetan 2018-2022 aldirako Euskal Estatistika Planaren aurreproiektuaren bitartez. Hori, aldi berean, lagungarria izango da Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako VI. Planak administrazio publiko guztientzat planteatzen dituen helburuak betetzeko.

C. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA

Aurrerapauso nagusia da lehenbiziko aldiz eman zaiola egokitasuna programari. Hobekuntza-proposamen artean nabarmentzen da sexuaren aldagaia kontuan hartzea genero-arrailak hobeto ezagutzeko.

7.4.7. Hezkuntza Saila

35. taula. Hezkuntza Sailaren aurrekontu-programak generoarekiko egokitasunaren arabera.

SAIL, ERAKUNDE AUTONOMO ETA PARTZUERGOEN AURREKONTU PROGRAMAK	ANALISIRIK GABE	ANALIZAGARRIA EGOKITASUNAREN ARABERA		
		BAI	%	EZ
HEZKUNTZA		2.662.917.000	% 98	53.909.000
4211. Egitura eta Laguntza		65.016.640		
4221. Haur eta Lehen Hezkuntza		902.887.752		53.909.000
4222. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa		967.650.748		
4223. Unibertsitateko Irakaskuntza		319.688.584		
4224. Araubide Bereziko Irakaskuntzak		55.575.582		
4225. Hezkuntza Berrikuntza eta Lanbide Heziketa		47.109.283		
4226. Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza HHE		35.993.544		

4231. Hezkuntza-sustapena		175.489.706		
4715. Hezkuntza Sist. Euskalduntzea		42.590.138		
5412. Ikerketa		50.915.023		
SAILARI ATXIKIAK:				
4221. Haurreskolak Partzuergoa		53.909.000	% 100	

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1 atalean

Sailaren aurrekontu-programa guztiak egokiak dira. Argibide batzuk:

- 4221 "Haur eta Lehen Hezkuntza" programatik transferentzia bat egiten da Haurreskolak Partzuergora. Horregatik, zenbateko hori ez-egoki gisa agertzen da Sailetik analisisa egiteko eta egoki gisa Haurreskolak Partzuergotik bertatik analisisa egiteko.
- 4224 "Araubide Bereziko Irakaskuntzak" eta 4221 "Haurreskolak Partzuergoa" programek ez dituzte aurkeztu dagozkien P18-Gen formularioak eta, beraz, ezin izan dira analizatu. Hala ere, aurkeztu ziren formularioak 2017ko aurrekontuetarako eta egoki gisa kalifikatu ziren; horregatik eusten zaio kalifikazioari.

Taula honetan Hezkuntza Sailak 2018ko aurrekontuetarako analizatu dituen programak adierazten dira:

36. taula. Hezkuntza Sailak analizatutako aurrekontu-programen aurrekontua.

ANALIZATU BEHAR DIREN AURREKONTU PROGRAMAK	AURREKONTUA (€)
HEZKUNTZA	2.662.917.000
4211. Egitura eta Laguntza	65.016.640
4221. Haur eta Lehen Hezkuntza	902.887.752
4222. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	967.650.748
4223. Unibertsitateko Irakaskuntza	319.688.584
4225. Hezkuntza Berrikuntza eta Lanbide Heziketa	47.109.283
4226. Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza HHE	35.993.544
4231. Hezkuntza-sustapena	175.489.706
4715. Hezkuntza Sist. Euskalduntzea	42.590.138
5412. Ikerketa	50.915.023

4225 "Hezkuntza Berrikuntza eta Lanbide Heziketa" eta 4715 "Hezkuntza Sistema Euskalduntzea" programak epez kanpo entregatu dira eta, beraz, egokitasuna eta garrantzia besterik ezin izan dira analizatu.

Hezkuntzako programen jarduketek berdintasunaren esparruan duten ahalmena ikusirik, deigarria da 4223 "Unibertsitateko Irakaskuntza" programa garrantzi txikikotzat jo izana. Aitzitik, 4211, 4221, 4225, 4222 eta 4231 programak garrantzi handiko gisa kalifikatu dira.

Formularioen analisi xehatuago batean murgiltzen bagara, hots, garaiz aurkeztutako zazpi programenean, ikusten dugu horietatik hiruk besterik ez dituztela identifikatzen garrantzi txikiko helburuak. 4211, 4223 eta 5412 programak dira. 2019ko aurrekontuetarako, gai horri buruz gogoeta egitea gomendatzen da.

Oro har, berdintasun-mandatuak analizatzeko ahalegin bat egin da eta horiek programaren jarduketekin alderatzeko, betebeharrak eta betetze-maila identifikatzeko.

Besteen gainera, sakontze-maila nabarmentzen da 4221 "Haur eta Lehen Hezkuntza" formularioa betetzean. Horri buruz adierazi behar da programa horren arduradun batek modu aktiboan parte hartu zuela genero-perspektiba duten aurrekontuen zuzeneko eta online prestakuntzan eta lantalde bat osatu zuela bere zuzendaritzan, programaren jarduketaren analisi xehatuagoa egitea ahalbideratu zuena.

- Nabarmentzeko aurrerapenak:

- 4223 "Unibertsitateko Irakaskuntza" programa: Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzaren jarduketak abiapuntua dira gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna gaitzetzeko azken helburua lortzean. Horretarako, Zuzendaritza pixkanaka ezartzen ari da, genero-perspektibatik, politikak, zuzenean edo zeharka, dauden genero-arrailek murriztuko dituztenak. Adibidez, Industriaren gidaritzapeko "Girls in Tech" proiektuan lankidetzan arituta. Haren helburua da euskal emakume gazteak STEM ikasketak egitera motibatzea, non ikasleen arteko genero-arraila nabarmenagoa den.

Ahalegin garrantzitsua egin da formularioak betetzen; izan ere, Sailaren barne-arrazoiak direla bide, betetze-prozesu osoan zehar ezin izan da eduki Saileko berdintasun-teknikariaren aholkularitza.

- Nabarmentzeko hobekuntzak:

- Saileko berdintasun-teknikariarekin batera, formularioak betetzeko modurik hoberena aztertuko da eta horretarako neurriak ezarriko dira.
- Lanean jarraituko da 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoaren printzipio orokorrak leial betetzeko. Halaber, estatistikak eta azterketak egokitzen lanean jarraituko da, genero-perspektiba sartuta eta norberak egindako zein kanpotik egindako txosten eta estatistiketan sexuaren arabera banantzea egitera premiatuta. Ildo horretan, arreta berezia jarriko da sortuko diren dokumentuak eta euskarriak idaztean, nolanahi ere hizkuntzaren erabilera sexista saihestuta.
- 4211 "Egitura eta Laguntza" programa: Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana inplementatzen jarraitu nahi da, 3 urterako eta 10 ikastetxerentzat hezkidetza-proiektu integral bat deituta, prestakuntza, aholkularitza eta ordu-zuzkidura gehitzen dituen.

Ikastetxe publiko eta itunpekoentzat deialdiak egiten jarraituko da, hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren arloan jarduketan planak garatzeko. Ikastetxe publikoak prestakuntzaz, aholkularitzaz eta ordu-liberazioaz hornituko dira. Ikastetxe pribatuak, prestakuntzaz, aholkularitzaz eta baliabide ekonomikoez.

- Hurrengo taulan Sailak identifikatutako berdintasun-politika espezifikoak zehazten dira.

37. taula. Hezkuntza Sailaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako.

AURREKONTU PROGRAMAK	BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
HEZKUNTZA		
4211. Egitura eta laguntza	BAUaren kostua	56.708
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	11.000
4223. Unibertsitateko Irakaskuntza	EHUk genero-indarkeriaren biktimei egindako azterketen diru-laguntza	54.286
	Deustuko Unibertsitateak genero-indarkeriaren biktimei egindako azterketen diru-laguntza	6.128
	Mondragónek genero-indarkeriaren biktimei egindako azterketen diru-laguntza	2.015
4225. Hezkuntza Berrikuntza eta Lanbide Heziketa	Hezkidetzeta-plana	100.000
	GUZTIRA	230.137

Sailaren aurrekontu egokiaren % 0,01 da. Kasu honetan ohartu behar da, formulario guztiak bete ez direnez, berdintasun-ekintza espezifikoak izan ditzaketen programak daudela eta horien aurrekontua ez dela kontuan izan.

7.4.8. Osasun Saila

38. taula. Osasun Sailaren aurrekontu-programak generoarekiko egokitasunaren arabera.

SAIL, ERAKUNDE AUTONOMO ETA PARTZUERGOEN AURREKONTU PROGRAMAK	ANALISIRI K GABE	ANALIZAGARRIA EGOKITASUNAREN ARABERA		
		BAI	%	EZ
OSASUNA		3.671.362.000	% 100	
4111. Egitura eta laguntza		17.906.342		
4112. Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa		3.079.806.730		
4113. Osasun Publikoa		42.321.621		
4114. Ikerketa eta Osasun Plangintza		8.437.681		
4115. Farmazia		518.301.121		
4116. Adikzioak		4.588.505		

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1 atalean

Bi programa garrantzi ertaineko gisa kalifikatu dira, beste laurak garrantzi handiko gisa.

Berdintasun-mandatuak analizatzeko eta horiek aurrekontu-programen helburuekin lotzeko ahalegin bat egin da.

Programa batzuen memorian erabilitako hizkuntzari zuzenketak egitea proposatu da.

- 4112 "Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa" programa: ohartu da hasierako memorian sektorearteko proiektu soziosanitarioak (emakumeen genitalen mutilazioa, genero-nortasuna, ijito herria eta genero-indarkeria) aipatzen direla, gero ez direnak garatzen helburu eta/edo ekintza gisa. Gainera,

emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako helburu eta ekintza inplizituek esplizitu gisa agertu behar lukete.

- 4114 "Ikerketa eta Osasun Plangintza" programa: Generoa aurreikusitako analisi eta azterketa gehienetan hartzen da kontuan, baina programan ez da inolako aipamenik egiten. Hurrengo batzuetan agertu behar luke. Emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako helburu inplizituek esplizitu gisa agertu behar lukete.
- 4116 "Adikzioak" programa: "Adikzioak" programa honetako adikzioen prebentziorako eta osasunaren sustapenerako programa gehienak oro har biztanleriari zuzendutakoak dira. Badira emakumeen premietarako programa espezifikoa eta programa horretan jaso behar lirateke. Alderdi positibo gisa, azterketa eta ikerketetan genero-perspektiba kontuan hartzea nabarmentzen du programak. Programak ez du jasotzen, baina "Euskadi eta drogak" inkestak "Droga-kontsumoa eta generoa" atala hartzen du barnean. Ekintza esplizitu gisa agertu behar luke.
- 4115 "Farmazia" programa: ohartu da "oro har biztanleriari zuzendutakoak direla eta generoa oso gutxi hartzen da kontuan hor".

39. taula. Osasun Sailaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako.

AURREKONTU PROGRAMAK	BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
OSASUNA		
4111. Egitura eta laguntza	BAUaren kostua	56.708
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	5.000
4113. Osasun Publikoa	Genero-indarkeriari buruzko jardunaldia Osakidetzako langileentzat	5.000
	haurdunaldi, erditze eta puerperiorako laguntza-materialak argitaratzea	17.000
4114. Ikerketa eta Osasun Plangintza	emakume ikertzaileen ikusgaitasuna	179.723
	Osasun Inpaktuaren Ebaluazioa (OIE)	8.000
	osasuneko desberdintasunen monitorizazioa	8.000
	osasunaren eta desberdintasunen determinatzaileak hedatzea	3.000
4116. Adikzioak	generoari eta adikzioei buruzko azterketak	20.000
	haurdunaldiari eta alkoholari buruzko liburuxkak	15.000
	Adikzioen VII. Plana	25.000
	"Euskadi eta Drogak" argitaratzea	40.000
GUZTIRA		382.431

Berdintasun-ekintza espezifikoei zuzendutako Sailaren aurrekontuaren ehunekoa % 0,01ekoa da.

Sailetik beste ekintza hauek identifikatu dira: esne-bankua sortzea eta programa eta laguntzen hitzarmenak eta kontratazioa tokiko erakunde eta erakunde sozialentzat adikzioen prebentzioaren esparruan. Ekintza horietarako aurreikusitako gastua 841.424 eurokoa da.

Giza papilomaren birusaren aurkako txertaketa-kanpainaren kostua ere identifikatu da. Horri buruz, hobekuntza-proposamen gisa hau aipatzen da 4113 "Osasun Publikoa" formularioan: "Giza papilomaren birusaren aurkako txertaketarekin lotutako ekintza inplizituak esplizitu gisa agertu behar luke. Mutilen txertaketa aztertu behar litzateke, haiek transmititzen baitute birusa, beste herrialde batzuetan egiten ari den bezala. Ingurumen-faktore kaltegarriek gizon eta emakumeen artean duten eraginari buruzko azterketak gehitu behar lirateke, eta neurketa-adierazleak.

Haatik, txosten horretarako eskatzen diren ekintza espezifikoak, arau teknikoaren arabera, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko xedea dutenak dira. Txertoaren kasuan, ordea, xedea da emakumeen artean eragina duen osasun-arazo bati erantzutea. Ekintza honetara bideratutako zenbatekoa 836.145 eurokoa da.

7.4.9. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila

40. taula. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren aurrekontu-programak generoarekiko egokitasunaren arabera.

SAIL, ERAKUNDE AUTONOMO ETA PARTZUERGOEN AURREKONTU PROGRAMAK	ANALISIRIK GABE	ANALIZAGARRIA EGOKITASUNAREN ARABERA		
		BAI	%	EZ
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA		32.748.110	% 85	5.576.890
4431 - Kontsumoa Finantzaketa erakunde autonomoi.				5.576.890
7510. Egitura eta Laguntza		2.816.630		
7511 - Turismoa		15.266.427		
7612 - Kanpo Merkataritza		14.665.053		
SAILARI ATXIKIAK:				
4432. Kontsumobide. Kontsumoaren Euskal Institutua		6.658.000		

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1 atalean

Sail berri hau legealdi honetarako sortu da eta berdintasunerako administrazio-unitatearen plaza ekainaren amaieran bete da. Ondorioz, ahalegin erantsia egin dute formularioak betetzean.

Aurrekontu-programa bakarra kalifikatu da ez-egoki gisa, erakunde autonomo atxiki Kontsumobideren finantzaketa delako. Beraz, erakunde horri dagokio bere programa genero-perspektibatik analizatzea.

A. TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

Taula honetan 2018ko aurrekontuetarako analizatu behar diren Sailaren programen aurrekontua adierazten da:

41. taula. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak analizatutako aurrekontu-programen aurrekontua.

ANALIZATU BEHAR DIREN AURREKONTU PROGRAMAK	AURREKONTUA (€)
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	32.748.110
7510. Egitura eta Laguntza	2.816.630
7511 - Turismoa	15.266.427
7612 - Kanpo Merkataritza	14.665.053
SAILARI ATXIKIAK:	
4432. Kontsumobide. Kontsumoaren Euskal Institutua	6.658.000

Bi programa jo dira garrantzi ertainekotzat (7511 eta 7612) eta bat garrantzi handikotzat (7510).

Kasu guztietan, xehetasunez analizatu dira berdintasun-mandatuak eta programen helburuekin nola lotzen diren.

Ez da identifikatu helburu ez-egokirik inolako aurrekontu-programatan.

7511 "Turismoa eta Ostalaritza" programarentzat ostalaritzaren sektoreko genero-desberdinkerien analisi oso interesgarria aurkeztu da, eta genero-arraile nagusiak detektatzen dira hor. Aurrerapenei dagokienez, egoera-diagnostiko bat aurkezten du.

Neurri zuzentzaile hauek proposatzen dira:

- Aurreko neurriekin jarraitzea eta agian azterketak eta analisiak sustatzea egoeraren ezagutza zuzenagoa izateko, aldaketarako benetan lagungarri izango diren neurriak ezartzearen.
- Aurrekontu-programak prestatzean genero-perspektiba txertatzea. Horretarako, beharrezkoa da aurrekontu-programa bakoitzaren arduradunak genero-perspektiba duten aurrekontuetan prestatzea.
- Aurrekontu-memoria birformulatzea, berdintasun-mandatuak kontuan izanik eta horiek berariaz aipatuta helburu eta ekintza egokietan.

Sailean identifikatutako berdintasun-ekintza espezifikoak taula honetan zerrendatu dira:

42. taula. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako.

AURREKONTU	BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA
------------	----------------------------------	-------------

PROGRAMAK		(€)
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA		
7510. Egitura eta Laguntza	Berdintasunerako administrazio-unitatearen (BAUren) kostua	56.708
	GUZTIRA	56.708

Sailak kudeatzen duen aurrekontu egokiaren % 0,17 da.

B. KONTSUMOBIDE. KONTSUMOAREN EUSKAL INSTITUTUA

- Aurrerapen nagusi gisa nabarmena da formularioa betetzea, hori ez baitzen egin 2017ko aurrekontuetarako.
- Aurrekontu-programatik bete behar diren berdintasun-mandatuak identifikatu dira.
- Programaren hiru helburu garrantzi txikikotzat jo dira; aitzitik, beste hiru garrantzi handikotzat.
- Funtsen bitarteko erakundeak identifikatu dituzte.
- Ezin izan dute zuzeneko biztanleria hartzailea analizatu datu bananduen faltagatik.
- Ez du identifikatzen berdintasun-ekintza espezifikorik, baina hiru talde nabarmentzen ditu: "Estetika eta elikadura, gorputzaren gurtza", "Iragarki publizitarioa" eta "Publizitatea eta gorputzaren gurtza", eta edertasun-kanonak eta erabilera sexista analizatzen dira iragarkietan.
- Neurri zuzentzaile hauek proposatzen dira:
 - Komunikazio-ekintzetan genero-perspektiba txertatzea.
 - Kontsumitzaile eta erabiltzaileen datuak sexuaren arabera banantzea ahal diren Kontsumobideren zerbitzuetan.
 - Kontsumobidek egoki deritzon pertsonen "Aurrekontuak genero-perspektibatik bideratzea" ikastarora joateko aukera ematea.
- Hobekuntzak detektatu dira memoria idaztean erabilitako hizkuntzan.

7.4.10. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

43. taula. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren aurrekontu-programak generoarekiko egokitasunaren arabera.

SAIL, ERAKUNDE AUTONOMO ETA PARTZUERGOEN AURREKONTU PROGRAMAK	ANALISIRIK GABE	ANALIZAGARRIA EGOKITASUNAREN ARABERA		
		BAI	%	EZ
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA		208.515.000	% 83	42.069.000
4511. Egitura eta Laguntza		3.826.114		
4512. Kirolak		8.273.186		
4513. Kulturaren Sustapena		31.792.954		

4514. Ondare Historiko-Artistikoa		21.198.599		
4515. Gizarte Hedabideak		130.933.582		
4711. Hizkuntza Politika		12.490.565		42.069.000
SAILARI ATXIKIAK:				
4713. Helduen Alfabetatze eta Berreuskal. Erakundea - HARE		42.069.000	% 100	

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1 atalean

Sailaren funtsen zati bat transferitu egin da. Zehazki, 4711 programaren zati batek HARE erakunde autonomo atxikiaren 4713 programa finantzatzeko du eta, bestetik, 4515 "Gizarte Hedabideak" programa osoak Euskal Irrati Telebista-EITB finantzatzeko du. Zenbateko horien analisia, beraz, funts horiek kudeatzen dituzten erakundeei dagokie. Hala ere, Sailak bere 4515 "Gizarte Hedabideak" formularioa bete du, eta aurrerago deskribatzen den informazioa aurkeztu.

A. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

44. taula. Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak analizatutako aurrekontu-programen aurrekontua.

ANALIZATU BEHAR DIREN AURREKONTU PROGRAMAK	AURREKONTUA (€)
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	208.515.000
4511. Egitura eta Laguntza	3.826.114
4512. Kirolak	8.273.186
4513. Kulturaren Sustapena	31.792.954
4514. Ondare Historiko eta Artistikoa	21.198.599
4515. Gizarte Hedabideak	130.933.582
4711. Hizkuntza Politika	12.490.565

Aurrekontu-programa guztiak egoki gisa kalifikatu dira.

Programa guztiak garrantzi ertaineko (4511 eta 4513) edo garrantzi handiko (gainerakoak) gisa kalifikatu dira.

Sail honetan, aurrekontu-programen analisia genero-perspektibatik egiteko, 4711 Hizkuntza Politika formularioa betetzeko abian jarritako proiektu pilotu bat dago estrategia gisa. Horregatik, programa honetan sakontze-maila nabarmena da analisia egitean.

Ez da joerarik identifikatu programen memorietan erabilitako hizkuntzan.

- 4711 "Hizkuntza Politika" programa. Aurrekontu-banakatzeko oso xehatua aurkeztu da, baina ez da berdintasun-ekintza espezifikorik identifikatu. Berdintasun-mandatuen eta programaren betetze-mailaren analisi zehatza egin da.

Aurrerapenak aurreko ekitaldiaren aldean: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan genero-ikuspegiarekin jarri da abian aurrekontuei buruzko gogoeta-prozesua. Horretarako, lan-batzorde bat sortu da arduradun nagusiekin (Sailburuordetza, zuzendariak eta zerbitzueta buruzagitzak), EHUko aholkularitza teknikoarekin eta Saileko berdintasun-teknikariarekin. Lan-batzordea bitan bildu da eta helburu eta eduki hauek landu dira:

- Genero-aurrekontuen gako diren helburuak, atalak eta metodologia azaltzea.
- 2018ko aurrekontuen galdera sorta betetzea.
- Hizkuntza-politikako programa generoaren ikuspegitik hobetzea.

Gogoeta egiteko eta aurrekontuak genero-ikuspegiarekin prestatzen aurrera egiten jarraitzeko esperientzia oso positibo gisa baloratu da. Horregatik, prozesua Saileko gainerako zuzendaritzekin errepikatzea aurreikusi da.

Hobekuntza-proposamena:

- Genero-perspektiba Euskararen Agenda Estrategikoan sartzen dela bermatzea.
 - Euskararen Aholku Batzordeari gomendatzea genero-perspektiba euskara sustatzeko planetan (LEHEN EBP, ORAIN ESEP ETA GERO...) sartzea.
 - Genero-perspektiba euskararen adierazle-sisteman sartzen hobetzea eta berdintasun-helburuak kontuan izatea.
 - Genero-aurrekontuak Hizkuntza Politikako Programan zein Sailaren beste programa batzuetan egiteko prozesuekin jarraitzea. Programa horri dagokionez, helburuzko biztanleria analizatuko da, huraosatzen duten kolektibo handiak oinarritzat hartuta.
- 4512 "Kirolak" programa. Programaren deskribapen xehatu bat aurkeztu da, baina ez da berdintasun-ekintzarik identifikatzen. Neurri zuzentzaile hauek proposatzen dira:
 - Genero-perspektiba gehitzea Zuzendaritzako ekintzak planifikatzeko unean.
 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren Berdintasun Planean jasotako ekintzak egitea.
 - Kirol-programaren arduradunen lan-batzorde bat sortzea eta 4 lan-saio egitea adituen laguntzaz eta Saileko Berdintasunerako Unitatearen aholkularitza eta jarraipenarekin, genero-perspektibatik aurrekontu-memoriari buruz gogoeta egiteko.
 - 4513 "Kulturaren Sustapena" programa: berdintasun-ekintza bat identifikatzen du programan, baina aurrekontu espezifiko bat esleitu gabe. Orduan, gastua I. kapituluari (langile-gastuak) dagokiola ulertzen da. Kultura sustatzeko programa genero-ikuspuntutik analizatzeko, arloko adituen aholkularitza izango da, baita

Berdintasun Unitatekoarena ere, programaren arduradun politiko eta teknikoekin lan-batzordeak sortuta.

- 4514 "Ondare Historiko eta Artistikoa" programa: formularioaren analisia egokitasunarena eta garrantziarena baino ez da izan. Ez dago, beraz, txostenean aurkezteko beste daturik.
- 4515 "Gizarte Hedabideak" programa: Programa hau EITB finantzatzeko da osorik. KABINETEAREN ETA GIZARTE HEDABIDEEN ZUZENDARITZA ere barnean hartzen du programa honek; Sailaren titularrarentzako laguntza-organo bat da, analisi, aholkularitza, koordinazio eta komunikazioko funtzioak dituen, baina gastua (I. kapitulua) Sailaren Egitura eta Laguntza programan jasota dago. Galdera sorta hori egindakoan, programaren memorian aldaketak egiteko premia ikusi da, gehiago argitzeko EITBk kudeatzen dituen helburuak eta adierazleak eta Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzatik kudeatzen direnak. Aurreko ekitaldiaren aldean aurrerapen gisa, 4711 "Hizkuntza Politika" programarako gauzatutako proiektu pilotua berreskuratzen du.
- Detektatutako berdintasun-ekintza espezifikoak hauek dira:

45. taula. Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako.

AURREKONTU PROGRAMAK	BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA		
4511. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	5.000
	berdintasunaren arloko prestakuntza sektorialeko ikastaroak	6.000
	GUZTIRA	67.708

Sailaren aurrekontu egokiaren % 0,09 da, EITBra transferitutako zenbatekoa kenduta.

B. Helduen Alfabetatze eta Berreuskal. Institutua - HABE

Erakunde autonomo honen kasuan aurrerapen garrantzitsuak izan dira.

Batetik, Hizkuntza Politikako aurrekontuaren analisi-prozesuan parte hartu dute, genero-perspektibatik. Formularioan adierazi duten bezala, partekatzen duten prozesua eta programaren politikarekin bikain lotzen dena.

Bestetik, formularioa betetzea, 2017ko aurrekontuetarako ez baitzen egin.

Berdintasun-mandatuak eta aurrekontu-programaren jarduketan betetze-maila analizatu dira.

Garrantzi ertaina eman zaio, nahiz eta ez duen identifikatzen berdintasun-ekintza espezifikorik. Hala ere, eta 203/2007 Dekretuari erantzunez, Berdintasunerako Administrazio Unitatea sortzeko prozesuari ekin zaio.

HABE erakunde autonomoak, 213/2007 Dekretuaren 3. artikulua betez, Berdintasunerako Administrazio Unitatea sortzeko tramiteak egin ditu. Nolanahi ere, txosten hau ixtean aurrekontuaren zuzkidura erabaki gabe dago.

7.4.11. Segurtasun Saila

46. taula. Segurtasun Sailaren aurrekontu-programak generoarekiko egokitasunaren arabera.

SAIL, ERAKUNDE AUTONOMO ETA PARTZUERGOEN AURREKONTU PROGRAMAK	ANALISIRIK GABE	ANALIZAGARRIA EGOKITASUNAREN ARABERA		
		BAI	%	EZ
SEGURTASUNA		624.859.000	% 98	15.435.000
2211. Egitura eta Laguntza		5.107.746		
2221. Trafikoa		12.220.921		
2223. Ertzaintza Zerbitzuan		592.649.956		15.435.000
2231. Larrialdietako Arreta		4.571.506		
4611. Hauteskunde Prozesuak		5.233.322		
5512. Meteorologia eta Klimatologia		3.235.216		
6113. Jokoak eta Ikuskizunak		1.840.333		
SAILARI ATXIKIAK:	15.435.000			
2224. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	15.435.000			

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1 atalean

Segurtasun Sailak, barne-arrazoiengatik, oraingoan bere aurrekontu-programen egokitasuna eta garrantzia besterik ez du aurkeztu. Beraz, ezin izan da gehiago sakondu analisisian. Sailari atxikitako erakunde autonomoak ez du eman P18-Gen formularioa.

Jarraian, Sailak kudeatzen dituen aurrekontu-programen generoaren garrantzi-maila zehazten da:

47. taula. Segurtasun Sailaren programen generoaren garrantzia.

SEGURTASUNA	Programen GENEROAREN GARRANTZI maila
--------------------	---

	Handia	Ertaina	Txikia
2211. Egitura eta Laguntza		X	
2221. Trafikoa		X	
2223. Ertzaintza Zerbitzuan	X		
2231. Larrialdien Arreta		X	
4611. Hauteskunde Prozesuak		X	
5512. Meteorologia eta Klimatologia			X
6113. Jokoak eta Ikuskizunak			X

Jarraian Sailaren berdintasun-politiketarako identifikatutako aurrekontua zehazten da:

48. taula. Segurtasun Sailaren aurrekontua berdintasun-ekintza espezifikoetarako, aurrekontu-programako.

SAILA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK	BERDINTASUN POLITIKEN BULTZADA BAUetatik	AURREKONTUA (€)
SEGURTASUNA		
2211. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	7.000
	GUZTIRA	63.708

Sailaren aurrekontu analizagarriaren % 0,01 da.

7.4.12. Lan eta Justizia Saila

49. taula. Lan eta Justizia Sailaren aurrekontu-programak generoarekiko egokitasunaren arabera.

SAIL, ERAKUNDE AUTONOMO ETA PARTZUERGOEN AURREKONTU PROGRAMAK	ANALISIRIK GABE	ANALIZAGARRIA EGOKITASUNAREN ARABERA		
		BAI	%	EZ
LANA ETA JUSTIZIA		195.761.000	% 93	14.172.000
1411 - Justizia Administrazioa		140.804.765		
1412 - Justizia		34.730.366		
3110 - Egitura eta Laguntza		2.755.146		
3112 - Lana		12.575.726		14.172.000
3212 - Gizarte Ekonomia		4.894.997		
SAILARI ATXIKIAK:				
3113 - OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea		14.172.000	% 100	

Oharra: ikus egokitasunaren definizioa txostenaren 7.1 atalean

LANA ETA JUSTIZIA

Sailaren aurrekontua ezin da analizatu egokitasunetik harago, formularioetan datuak falta direlako. Hala ere, Sailaren asmoa formularioak aztertzeari eta betetzeari ekitea da, baliabide teknikoez hornitutakoan.

Sailak, 4/2005 Legearen 11. artikulua betez, Berdintasunerako Administrazio Unitatea sortzeko tramiteak egin ditu. Nolanahi ere, txosten hau ixtean aurrekontuaren zuzkidura erabaki gabe dago.

OSALAN

Programak, bere jarduketan artean, prebentzio-jardueretan genero-perspektiba gehitzea aurreikusten du, eta OSALANen lankidetza eta koordinazioa berdintasun-erakundeekin. 2018ko aurrekontuan BAUren kostua (55.279 €) aurreikusten du, eta EHUren diru-laguntza bat etxeko emakume langileen egoera analizatzeko (25.000 €).

7.5. BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK. LABURPENA

Taula honetan aurrekontu zehatzarekin identifikatutako berdintasun-ekintza espezifikoak zerrendatu dira.

50. taula. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko edo bermatzeko ekintza espezifikoak.

AURREKONTU PROGRAMAK	BERDINTASUN EKINTZA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTU A (€)
LEHENDAKARITZA		
1121. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	57.388
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	5.000
	Ikuskerak	50.600
	GUZTIRA	112.988
SAILARI ATXIKIAK:		
3223. Emakunde	aurrekontu-programa osoa	5.817.000
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA		
1211 - Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	58.424
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	12.000
1213 - Funtzio Publikoa, Langileak Hautatzea eta Prestatzea	berdintasun-teknikaria	
	I. Planaren ekintzak gauzatzeko aurrekontua	43.000
	GUZTIRA	113.424
EKONOMIA GARAPENA ETA AZPIEGITURAK		
7211. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	59.863
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	6.000
	GUZTIRA	65.863
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK		
3111. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	59.863
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	10.000
3122. Immigrazioa	Berdindu zerbitzua	215.000
	Sexu-, familia- eta genero-aniztasunari buruzko Unibertsitateko Masterreko Irakasgaia (kostu balioetsia)	2.765
	Aniztasun afektibo-sexual, familiar eta generokoari buruz sentsibilizatzeko programa	109.000
	Zinegoak Zinemaldia (kostu zenbatetsia)	27.900
	Biltzen	37.457
	GUZTIRA	392.122

3123. Gizarte Zerbitzuak	Laguntza ekonomikoak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat	1.100.000
	Laguntza ekonomikoak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat	411.928
	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Zerbitzu Espezializatuko Langileak. (Langileen kostua)	109.729
	Hirugarren sektorerako laguntzen esparruan esku-hartze asoziatiboko-emakume ijitoen elkartearen proiektuak diruz laguntzea. (kostu zenbatetsia)	45.636
	Hirugarren sektoreko erakundeei zuzendutako urteko deialdi arruntaren bidez gizarte-bazterketako egoeran dauden emakumeei zuzendutako esku-hartze asoziatiboko programak edo proiektuak sustatzea. (kostu zenbatetsia)	135.776
	Esku-hartze sozialeko jardueretarako laguntzen esparruan prostituzioaren esparruko proiektuak diruz laguntzea. (kostu zenbatetsia)	83.466
	Hirugarren sektorerako laguntzen esparruan familia gurasobakarrei zuzendutako laguntza-proiektuen esku-hartze sozialeko proiektuak diruz laguntzea (kostu zenbatetsia)	64.205
	Emakumeen eta haien baldintzetako inpaktuaren aldeko GZESari buruzko txostena (kostu zenbatetsia)	21.000
	Diru-laguntzak hirugarren sektorerako laguntzen esparruan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin esku-hartze sozialeko proiektuentzat (kostu zenbatetsia)	54.163
	GUZTIRA	2.025.903
3124. Familia eta Komunitate Politika	Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak	400.000
	Gurasotasun positiboa trebetasunak eta konpetentziak garatzeko. Online ikastaroa familiekin harremanetan dauden profesionalentzat.	18.150
	Bateratze Erantzunkidea-CONCILIA +. Enpresei eta langileei aholkularitza emateko tresna berriak sartzea	15.000
	Enpresetan bateratze erantzunkidea sustatzeko neurriak abian jartzea. Bateratze-neurriak inplementatzeko tresna sortzea.	108.900
	GUZTIRA	542.050
	GUZTIRA	3.029.938
SAILARI ATXIKIAK: LANBIDE		
3111. Lanbide. Enplegu eta Gizarte Politiken Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	58.514
	Plana ebaluatzen eta kudeatzeko aurrekontua	50.000

	GUZTIRA	108.514
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA		
4313. Lurralde Antolamendua	diru-laguntza udalerrientzat udal-planeamenduan eta -hirigintzetan genero-perspektiba txertatzeko	200.000
4420. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	58.067
	Plana ebaluatzen eta kudeatzeko aurrekontua	6.000
	GUZTIRA	264.067
OGASUNA ETA EKONOMIA		
6110. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	35.000
	GUZTIRA	91.708
SAILARI ATXIKIA:		
5513. EUSTAT	berdintasun-funtzioak dituen teknikari estatistikoaren kostua	56.708
	"Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko atala web-orrian" izeneko eragiketa estatistikoa	45.500
	GUZTIRA	102.208
HEZKUNTZA		
4211. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	11.000
4223 - Unibertsitateko Irakaskuntza	EHUk genero-indarkeriaren biktimei egindako azterketen diru-laguntza	54.286
	Deustuko Unibertsitateak genero-indarkeriaren biktimei egindako azterketen diru-laguntza	6.128
	Mondragónek genero-indarkeriaren biktimei egindako azterketen diru-laguntza	2.015
4225. Hezkuntza Berrikuntza eta Lanbide Heziketa	Hezkidetza-plana	100.000
	GUZTIRA	230.137
OSASUNA		
4111. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	5.000
4113. Osasun Publikoa	genero-indarkeriari buruzko jardunaldia Osakidetza langileentzat	5.000
	haurdunaldi, erditze eta puerperiorako laguntza-materialak argitaratzea	17.000
4114. Ikerketa eta Osasun Plangintza	emakume ikertzaileen ikusgaitasuna	179.723
	Osasun Inpaktuaren Ebaluazioa (OIE)	8.000

	Osasuneko desberdintasunen monitorizazioa	8.000
	Osasunaren eta desberdintasunen determinatzaileak hedatzea	3.000
4116. Adikzioak	generoari eta adikzioei buruzko azterketak	20.000
	haurdunaldiari eta alkoholari buruzko liburuxkak	15.000
	Adikzioen VII. Plana	25.000
	"Euskadi eta Drogak" argitaratzea	40.000
	GUZTIRA	382.431
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA		
7510. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	GUZTIRA	56.708
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA		
4511. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	5.000
	berdintasunaren arloko prestakuntza sektorialeko ikastaroak	6.000
	GUZTIRA	67.708
SEGURTASUNA		
2211. Egitura eta Laguntza	BAUren kostua	56.708
	BAUren politikak bultzatzeko aurrekontua	7.000
	GUZTIRA	63.708
LANA ETA JUSTIZIA		
SAILARI ATXIKIAK:		
3113 - OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea		
3113 - OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	BAUren kostua	55.579
	diru-laguntza EHUri etxeko emakume langileen azterketa egiteko	25.000
	GUZTIRA	80.579
		10.586.983

Berdintasun-ekintza espezifikoei eskainitako ehunekoa sail, erakunde autonomo eta partzuergoen guztizko aurrekontuarekiko % 0,11koa da, eta % 0,09koa EAEko

aurrekontu orokorreko. Kontuan izan behar da Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak bere programen zati bat analizatu duela eta, beraz, aurreikustekoa da txostenaren analisirako aurkeztu ez diren beste ekintza espezifiko batzuk egotea. Kontuan izan behar da, baita ere, Hezkuntza Sailak eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretakoak ez dituztela sakon analizatu beren programa guztiak. Azkenik, Segurtasun Sailak ez du horri buruzko informaziorik aurkeztu. Hala eta guztiz ere, ez da espero berdintasun-ekintza espezifikoari eskainitako ehunekoa modu adierazgarrian aldatzerik.

Taulan ikus daitekeenez, Emakunderi dagokio ekintza espezifikoari eskainitako % 55. Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak aurrekontuaren % 29 hartzen du. Gainerako sailek % 16 gauzatzen dute, eta gastuaren zati handiena berdintasunerako administrazio-unitateen kostuan kokatzen dute, eta beren sailetan berdintasun-politikak bultzatzeko esleitzen zaien aurrekontu propioan.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da sail guztiek, sortu berriek izan ezik (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Lan eta Justizia Sailak) partida espezifikoak dituztela berdintasun-politikak bultzatzeko, 4/2005 Legearen 11. artikulua betez.

8. EAEKO	AURREKONTU	OROKORRAK	ANALIZATZEKO
PROZESUAREN EBALUAZIOA			

Aurten, sailek, erakunde autonomoek eta partzuergoek bi aldiz bete dituzte aurrekontu orokorren (2017ko eta 2018ko aurrekontuen) genero-inpaktuari buruzko txostenak prestatzeko formularioak. Horrek ahalegin garrantzitsua ekarri du metodologiaren ikaskuntzako langileen aldetik, baina baita gogoeta ere, ikusteko nola eragiten den programen jarduketekin emakumeek eta gizonek bizi dituzten desberdinkeria-egoera eta -baldintzetan, ondoren neurri zuzentzaileak ezartzeko. Ahalegin horrek berekin dakar aurrekontu-programen etengabeko hobekuntzako prozesu bat.

Ogasun eta Ekonomia Sailak EHU kontratatu du 2017an zehar, eta horrela dago aurrekontuan 2018rako ere, P-Gen metodologia diseinatzeko eta egokitze eta Sailari aholkularitza teknikoak emateko. Horren ondorioz, Emakunderekiko lankidetza estutik eta sail eta erakunde autonomoen berdintasunerako administrazio-unitateetatik jasotako ekarpenetatik, P18-Gen formularioa sortu da, hots, aurrekontu orokorren analisia genero-perspektibatik egiteko informazioa biltzeko erabilitako tresna.

Formularioen betetze-mailari dagokionez, arazo handienak izan dira zeharkako ekintzetarako aurrekontuak identifikatzea eta funts publikoak kudeatzen dituzten bitarteko eta azken erakundeen analisia. Aurrekontu-programek berekin ez dakartenez helburuen eta ekintzen aurrekontua, izugarri zaila da aurreikusitako gastua esleitzea eta formularioa behar bezala betetzea. Hala eta guztiz ere, modu adierazgarrian aurreratu da aurreko urteen aldean. Sail barruko eta sailarteko koordinaziorako lan-prozesuak inplementatu dira, aurrekontu-programa bakoitzean eragina duten berdintasun-mandatuak analizatu, ekintza espezifikoak identifikatu eta hobekuntza-proposamen ugari aurkeztu, besteak beste.

Sin.: Hernando Lacalle Edeso Aurrekontuen zuzendaria Aurrekontu Zuzendaritza Ogasun eta Ekonomia Saila	Sin.: Zaloe Urbizu Sierra Berdintasunerako Administrazio Unitatea Zerbitzu Zuzendaritza Ogasun eta Ekonomia Saila
--	---